

2021eko EKINTZEN BILDUMA

© Polo Garat - Zapat(hari) egitasmoa Hazparne, 2019

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEKO BARNE ANTOLAKETA 2021EAN.....4-6

1. ONDAREA & SORKUNTZA ELKARTU EUSKAL ETNOPOLOAREN LABELAREN KARIETARA.....7

1.1. Kultura ondare immaterialari buruzko ikerketa eta ezagutza aberastu.....7

1.1.1. Ekitaldi zientifikoaren antolaketa.....7

- Artxibo soinu-duneei eta sorkuntzari buruzko kolokio baten antolaketa.....7
- Mintegi baten antolaketa hilabetero.....7-8

1.1.2. Kultura ondare immaterialaren bilketa eta tratamendua.....8

- Eleketa programa jarraitu.....8
- Ipar Euskal Herriko lehengo artxiboen salbatzea.....9

1.2. Ikerketa eta sorkuntza artistikoa uztartu.....9

1.2.1. Museoa *Urtu* proiektuaren abiatzea.....9

1.2.2. *Zapat(h)*ari proiektuaren bururatzea.....10

1.3. Mediazio ekintzak bultzatu.....11

1.3.1. Ikerketen eta gogoeten hedapena eta balorizazioa.....11

- *Eleketa* erakusketa ibiltariaren hedapena.....11-12
- *Eleketa* multimedia pantailen hedapena.....12
- Alemanian preso egon Euskaldunen grabaketen balorapena (1916-1917).....12-13
- *Euskal Etnopoloaren* labelaren karietara antolatu ekintzen eta aktualitatearen Hedapena.....13-14

1.3.2. Ondare datubaseetarako sarbideen erraztea.....14

- Eleketaren karietara bildu fitxategien sailkatzea eta berriz izendatzea.....14
- Ahozko memoriari buruzko *Mintzoak* atariaren aberastea.....14-15
- France Bleu Pays Basque irratiko euskal artxiboen balorapena (1970-1990).....15
- Xipri Arbelbide-ren soinu artxiboen balorapena (1974-1998).....16
- Departamenduko Artxibotegiko 18 AV bilaketa tresnaren datu-uzta (Euskal itsas ondarea- Donibane Lohizune / Ziburuko portua).....16

2. EUSKAL KULTURA TRANSMITITU ETA HEDATU..... 17

2.1. Proiektuak sustatu bitartekaritza kulturalaren zerbitzuko.....17

2.1.1. Sentsibilizazio tresnen eta ekintzen gauzatzea.....17

- EKEren politikaren zehaztea Heziketa Artistikoaren eta Kulturalaren alorrean.....17
- Eke.eus atariaren eduki tematikoei buruzko lana.....17-19
- *Zineskola* dispositiboaren koordinaketa.....19

• <i>Collège au cinéma</i> dispositiboaren tokiko lan taldean parte hartzea.....	20
• <i>Euskarazko kamishibai</i> -ei buruzko lantaldearen ko-animazioa.....	20
• <i>Irakurketa</i> kutxen sortzeko egin elkarlana.....	20
2.1.2. Euskal kulturaren aldeko sentsibilizazio ekintzen ko-antolaketa.....	20
• Irakurketa publikoko profesionalen sareari zuzendu egun profesionalen ko-antolaketa.....	20-21
• Presondegian antolatu sentsibilizazio egunen ko-antolaketa.....	22
2.2. Kultura politiketan euskal kulturaren egituraketa eta garapena lagundu.....	22
2.2.1. Euskal kulturaren integrazioa kultura politika publikoetan.....	22
• Kultura politika publikoen laguntzea eta osagarritasunen zehaztea.....	22
• Hirien laguntzea kultura programazioetan.....	23
2.2.2. Kultura alor batzuen egituraketari eta garapenari laguntza.....	23
• Euskal antzerkia.....	23-24
• Euskal zinema.....	24-25
• Euskal dantza.....	25
• Euskal literatura.....	26
• Euskal musikak: laguntza ekoizpen diskografikoari	26
2.3. Tokiko kultur elkarteei laguntza eskaini eta aholkuak eman.....	27
2.3.1. Beharretara egokituak diren laguntzen bultzatzea	27
• Komunikazioari laguntza.....	27
• Laguntza elkartekideei: informazio gualdiak, jarraitze kolektiboak eta esperimentazio tailerra.....	27-28
2.3.2. Tokiko elkarten proiektuetarako laguntza.....	28
• Sorkuntza proiektuei laguntza.....	28-36
• Hedapen proiektuei laguntza.....	36-46
2.3.3. Elkartuz, kultura diagnostiko partekatua.....	47
3. EUSKAL KULTURA HEDATU.....	48
3.1. Lehentasuna eman partaidetza lanari eta gaitasunen sarean ezartzeari.....	48
3.1.1. Lankidetzen azkartzea labelizatuak diren lurraldeko egiturekin.....	48
• Akitania Hegoaldeko Eszena nazionala.....	48
• Maurice Ravel Kontserbatorioa.....	48
• Atabal, musiken gunea.....	48
• Malandain Ballet Biarritz Koregrafia Zentroa.....	47-48
3.1.2. Partaidetzen emendaketa eta segipena Akitania Berrian « Aquitaine.eus » programaren bitartez.....	49
3.2. Kultura trukaketak sustatu.....	49

3.2.1. Mugaz gaineko kultura lankidetzaren garapena	49
• Partaidetza Gipuzkoako Foru Aldundiarekin.....	49
• Partaidetza Getxoko Udalarekin.....	49
• Partaidetza Loraldia festibalarekin.....	49
• Partaidetza Getariako Elkano fundazioarekin.....	49-50
• Partaidetza Durangoko Azoka antolatzen duen Gerediaga elkartearekin.....	50-51
• Partaidetza.eus fundazioarekin.....	52
3.2.2. Québec-ekilako trukaketen garapena.....	53
• SOKA-ren bertsio « transatlantikoa »-ren hedapena.....	53
3.3. Kultura aktualitatea baloratu tresna numerikoen bidez.....	53
3.3.1. Kultura aktualitatearen balorapena.....	53
• EKE-ren eta bere partaideen aktualitatearen promozioa.....	53
• Euskal kulturaren agendaren osatzea.....	54
• Sortzaileen ikuspuntuen agerian ematea	54
• Itzuli frantsesa-euskara itzultzailearen garatzeko ekarpena.....	54-55
3.3.2. Orain arteko tresna batzuen hobetzea.....	55
• Kultura eragileen errepertorioaren hobetzea	55
• Social-media estrategia baten plantan ezartzea.....	55
• eke.eus eta mintzoak.eus webguneak Datuen Babeserako Araudi Orokorren arabera egokitzea.....	56
ERANSKINAK.....	57
2021KO ELKARTEKIDEEN ZERRENTA.....	58-60
KONDUAK.....	61

EUSKAL KULTUR ERAKUNDEKO BARNE ANTOLAKETA 2021EAN

BILTZAR NAGUSIA

174 elkarte-kidek osatzen dute eta gainera barne dira ere legezko kideak eta pertsonalitate kalifikatuak.

BULEGOA

<i>Lehendakaria</i>	Mikel ERRAMOUSPÉ jauna
<i>Lehendakariordea</i>	Pierre-Paul BERZAITZ jauna
<i>Idazkaria</i>	Juhane DASCON jauna
<i>Diruzaina</i>	Peio SOULÉ jauna

ADMINISTRAZIO KONTSEILUA

Instituzioen taldea

Estadoaren ordezkariak

Éric SPITZ jauna, Pirinio Atlantikoetako prefeta
Philippe LE MOING-SURZUR jauna, Baionako suprefeta
Maylis DESCAZEUX anderea, DRAC-eko zuzendaria

Akitania Berria Eskualdearen ordezkariak

Charline CLAVEAU anderea, eskualdeko kontseilaria, Andde Sainte-Marie jauna (2021eko irailetik)

Frédérique ESPAGNAC anderea, eskualdeko kontseilaria

Ordezkoak:

Émilie DUTOYA anderea, eskualdeko kontseilaria

Alice LEICIAGUEÇAHAR anderea, eskualdeko kontseilaria, Jean-Luc Armand jauna (2021eko irailetik)

Pirinio Atlantikoetako Departamenduaren ordezkariak

Max BRISSON jauna, departamenduko kontseilaria

Bénédicte LUBERRIAGA anderea, departamenduko kontseilaria, Maider Behoteguy anderea (2021eko irailetik)

Euskal Hirigune Elkargoaren ordezkariak

Antton CURUTCHARRY jauna, hizkuntza politika, kultura eta erkidegoko kultura ekipamenduetarako lehendakariordea

Joseba ERREMUNDEGUY jauna, mugaz gaineko, Europako zein nazioarteko lankidetzetarako ordezkari kontseilaria

Eusko Jaurlaritzaren ordezkaria

Aitziber ATORRASAGASTI anderea, kultura zuzendaria

Nafarroako Gobernuaren ordezkaria

Mikel ARREGI jauna, hizkuntza politikaren zuzendaria

Kultura eragileen taldea

Euskal kultura eragileen ordezkariak

Mikel ERRAMOUSPÉ jauna, lehendakaria

Pierre-Paul BERZAITZ jauna, lehendakariordea

Juhane DASCON jauna, idazkaria

Peio SOULÉ jauna, diruzaina

Agnès AGUER anderea

Patxi AMULET jauna

Julien CORBINEAU jauna

Jean-Baptiste COYOS jauna

Katixa DOLHARÉ-CALDUMBIDE anderea

Xabi ETCHEVERRY jauna

Filipe LESGOURGUES jauna

Gomitatuak

Erramun BACHOC jauna, hizkuntza aholkularia

Bernadette SOULÉ anderea, EEP-ko zuzendaria

KONDUETARAKO KOMISARIOA

Pierre ARANGOITS jauna

LANTALDEA

Zuzendaritza & administrazioa

Zuzendaria

Administrazioa, konduak eta giza-baliabideak

anderea

Johañe ETCHEBEST jauna

Elixabet MORTALENA

Kultura egitasmoak eta bitartekaritza saila

Egitasmo arduraduna « Ikusgarrigintza,

zinema eta mugaz gaineko proiektuak »

Kultura bitartekaritzaren arduraduna

Frank SUAREZ jauna

Maia ETCHANDY anderea

Ondarea & euskal Etnopoloa saila

Etnologoa eta Etnopoloaren koordinatzailea

anderea

Terexa LEKUMBERRI

Ondarearen balorapenaren arduraduna (lanaldi partziala) Maite DELIART anderea

Etnopoloaren misio karguduna

Maitane HERNANDEZ

anderea

Numerikoa saila

Estrategia & egitasmo numerikoen arduraduna

Internet egitasmoentzako itzultzailea & integratzailea

Multimedia erredaktorea (lanaldi partziala)

Jakes LARRE jauna

Frederik BERRUET jauna

Marion LASTIRI anderea

1. ONDAREA & SORKUNTZA ELKARTU EUSKAL ETNOPOLOAREN LABELAREN KARIETARA

1.1. KULTURA ONDARE IMMATERIALARI BURUZKO IKERKETA ETA EZAGUTZA ABERASTU

1.1.1. Ekitaldi zientifikoaren antolaketa

➤ Artxibo soinu-dunei eta sorkuntzari buruzko kolokio baten antolaketa

Euskal etnopoloa labelaren baitan, Euskal kultur erakundeak, ARI-CNRS erakundearekin eta Baionako Euskal Museoarekin elkarlanean, bere urteko kolokioa antolatu du 2021eko ekainaren 17 eta 18an. Honen gaia *Artxiboa eta Sorkuntza* izanez, kolokioa bi ardatz nagusiren inguruan egituratu da: alde batetik artxiboaren sortzea, eta bestalde, artxibotik sortzea.

Bi egun horietan, ikertzaileek eta artistek haien gogoetak eta esperientziak partekatu dituzte (hamabost inguru ziren) eta kolokio honen bi galdera nagusiei erantzuten saiatu dira: nola artxiboa eta bereziki «artxibo bilakatzeko prozesua» berez sorkuntza ekintza bat da? Nola artistek bereganatzen dute artxiboa beren sorkuntzaren hazkurri izan dadin? Kolokioa presentzialean iragan da (publikoa nahitara mugatua : 15) eta distantzialean (60 pertsona) zoom aplikazioaren bidez.

Hizlariak eta ekarpenak hemen :

<https://www.eke.eus/eu/euskal-etnopoloa/ikergaiak/ondarea-eta-sorkuntza/euskal-etnopoloren-kolokioa-artxiboa-eta-sorkuntza>

➤ Mintegi baten antolaketa hilabetero

Laugarren urtez segidan, EKEk, EHES-ekin eta euskal etnopoloren sortzaileekin partaidetzan, mintzaldi ezberdinetaz osatu mintegi bat antolatu du (mintzaldiak dohainik eta denei irekiak izan dira).

Lehen hitzordua *on line* antolatu da 2021eko urtarrilaren 21ean. Leire Díaz de Gereñu Lasagak (Doktorea eta Hizkuntzalaritza eta Euskal Ikasketa Saileko irakaslea-UPV/EHU), *Ondarea eta sorkuntza: begirada gurutzatuta bat kontalaritzari* gaiaren inguruko mintzaldia eskaini du (25 entzule).

Beste lau mintzaldik segitu dute:

- 2021eko otsailaren 18an, distantzian : *Euskal raparen hausnarketa antropologiko historikoa*, Eric Dicharry, antropologo-artistarekin (25 entzule)
- 2021eko apirilaren 15ean, distantzian : *Bonaparte printzearen euskal euskalkien ikerketa: lanketa zientifiko eztaba da ezina?*, Kepa Altonaga, biologia irakaslea UPV/EHU-n eta idazlearekin – Baionako mediatekarekin ko-antolatua (30 entzule)
- 2021eko azaroaren 18an, Baionako Euskal Museoan : *Baztertzea eta jende baztertuak ipar Euskal Herrian XIX.mendean*, Peio Etcheverry, historia irakaslearekin (35 parte hartzaile)
- 2021eko abenduaren 16an, Baionako Euskal Museoan: *Euskal dantza eta generoa*, Oier Araolaza, dantzari-ikertzailearekin – Eusko Ikaskuntzarekin ko-antolatua (25 jende)

1.1.2. Kultura ondare immaterialaren bilketa eta tratamendua

➤ *Eleketa* programa jarraitu

Eleketa programak bere bidea segitu du 2021ean, 2020an COVID-aren gatik bildu beranta berriz harrapatuz. 28 lekukotasun bildu dira 2021ean (bi azkenak 2022ko urtarrilean), horietatik 13 Nafarroa-Beherean, 10 Xiberoan ta bost Lapurdin. Batzuk binazka filmatuak izan direnez, orotara hamabi emazte eta hemezortzi gizon kondatzen dira.

2021eko bilketak Nafarroa-Behereko eta Xiberoko gune batzueri lehentasuna eman dio. Alabainan *Eleketa-ahozko oroimenak* erakusketa Donibane-Garazin egon da 2021eko azaroan, Baigorri izanen da 2023ko apirila-maitzean ta Xiberoan 2023an. Garrantzitsua zen beraz eskualde horietako hutsuneetan bilketa azkartzea.

Lapurdin bildu lekukotasunak aldiz egitasmo berezi batean sartzen dira: Luhuson egoitza duen *Le Petit Théâtre de Pain* konpainiak ikerketa-sorkuntza lan berezi bat darama herri hortan ustiatua izan den harrixuriari buruz (harrobia, lantegia).

Normal den bezala, Euskal kultur erakundea proiektu horri lotu da eta, PTDP-ekin batera, ahozko memoriaren arloa lantzen du.

- **Tratamendu artxibistikoa**

Lekukotasunak bildu arau sailkatzeaz gain, horretaz arduratzen den misio kargudunak, *Eleketa* programan sortu eta hazi dituen 10 datubaseak ber-ikusi ditu Departamenduko artxibo zerbitzuen arau tipografikoak aplikatuz. Bere aldetik, artxibo zerbitzuak datubaseen erredakzioa errextu ahal izateko orientazio gida baten idaztea hitzeman du.

- **Datubaseen publikazioa Departamenduko artxibo zerbitzuaren ganik**

Ekoiztutako datubaseak Pirinio-Atlantikoetako Departamenduko artxibo zerbitzuari bidaliak zaizkio, baieztatu ondoren argitaratu ahal izateko.

2017an *Euskal dantza* (19 AV) publikatua izan zen.

2021eko irailean, *Euskal itsas ondarea – Donibane Lohizune-Ziburuko portua* (18 AV) izeneko datubasea publikatua izan da osoki (parte bat 2020 urte hastapenean earchives.le64.fr gunean argitaratua izan zen).

➤ Ipar Euskal Herriko lehengo artxiboen salbatzea

- **Guillaume Irigoyen-en funtsa**

2012az geroztik EKEk daraman artxibo zaharren balorapena Departamenduaren begiratze programan sartzen da. Artxiboen numerizazioa egin ondoren, EKEri bidaltzen dizkio tratatu ahal izateko (deskribapena eta sailkapena datubase batean).

2021ean, Guillaume Irigoyen-en artxibo soinuak baloratuak izan dira (30 oren).

- **EKEk ekoiztutako datubase normalizatuak**

Eleketa programarentzat egin duen bezala, horretaz arduratzen den misio kargudunak datubaseen ber-irakurketari ekin dio.

2012-2013 urteetan ekoiztu Irulegiko Irratiaren artxiboak lotu datubasearen kasuan, klasifikazioa berriz hartu behar izan du. Fitxategi numerikoak artikuluen izendapenekin bat izan zitezten.

- **Philippe Oyhambururen funtsaren ber-irakurketa Departamenduaren ganik**

Oyhambururen artxibo funtsa (5 NUM 11/1-528), 2014-2015 urteetan tratatu zuen EKEk. Baieztatze fasean da Departamenduko Artxibo zerbitzuan argitaratu eta konsultagarri bilakatzeko.

1.2. IKERKETA ETA SORKUNTZA ARTISTIKOA UZTARTU

1.2.1. Museoa *Urtu* proiektuaren abiatzea

Museoa Urtu Nader Koochaki artistaren erakusketa egitasmoa da, EKE eta Baionako Euskal museoarekin garatua. Nader Koochaki (Donostia, 1983) Euskal Herriko Unibertsitatean soziologian lizentziatu da eta 2008 urtetik zientzia sozialak, arte garaikidea, bideogintza, argazkigintza eta soinu-gintza arloekin uztartzen ditu. Bere lanak Donostiako Tabakaleran eta Gasteizko Artium arte guneetan aurkeztuak izan dira, besteak beste.

Museoa Urtu erakusketa Xiberoko artalde inbentario batean oinarritzen da. Hortik joare soinuak, karta topografikoak, argazkiak, testuak bildu nahi ditu, horien antolatze erakusketa batean, Baionako museoan ikusgai izanen dena 2023 urte bukaeran.

Udan, Nader-ek Irati inguruetako olhetan 45 bat artzain ezagutu eta galdezkatu ditu artzaintza jarduerari buruzko hainbat datu bilduz bere lanaren elikatze asmoz (olhen antolaketa, joare mota desberdinak, artzainen izenak jatorria eta etxaldea, ardiak markak, joare egile eta

saltzaileak, bazkalekuen identifikazioak, transhumantzia /etab). Gaur egun bere egitasmoa ikerlan fase batean da, ekoizpen fasea 2022ko urtean hasiko delarik.

EKE eta Euskal Museoarekin batera, Gipuzkoako Diputazioko Gordailua zentroa eta Xiberoko Mendi Sindikata egitasmo honetan partaide gisa sartuak dira.

1.2.2. *Zapat(h)ari* proiektuaren bururatzea

Eleketa funtsa interes handiko baliabide bat bilakatu denez bai ikertzaileentzat bai sortzaileentzat, Hazparneko zapatagintzaren inguruko egonaldi partekatu bati buruz joatea erabaki zuten 2019an euskal etnopolokoak eta Clarenza kulturala zentroak, Hazparnen 2011n bildu lekukotasunetatik abiatuz. Perspektiba horretan, zientziaren eta artearen ekarpenak uztartu nahi izan dituzte, Hazparneko iragan industrialaren bai eta gaurko Hazparnerekin dituen erresonantziak ikertzeko.

Hiru hurbilketa ezberdin eta osagarri gurutzatu dira egonaldi horretan:

- Aitzpea Leizaola antropologoak EKE-k bildu lekukotasunak ikertu ditu eta garai garrantzitsu harek gaur egungo Hazparnen utzi aztarnak aztertu.
- Polo Garat argazkilariak zapatagintzak Hazparnen utzi ondare materiala eta sinbolikoa argazkitan hartu du.
- Hazpandarrak ere gaiari interesatu dira. Antropologoarekin eta argazkilariarekin batera, dozena bat herritar bildu dira 2020ko urtarrila- 2021eko ekaina artean iraganaz zituzten sendimendu eta interpretazio desberdinetaz solastatzeko. Leku historiko batzuetan ere ibili dira: taneria xahar, zapata lantegi, langile bizitegi eta ostatu.

Zapat(h)ari izeneko egonaldi berezi hori bi hitzordu nagusiek markatu dute:

- Lehena 2019ko abenduaren 19an iragan zen, ortzirale arratsez, Hazparneko Les Tilleuls ostatuan. Gaualdi horretan, Aitzpea Leizaola-k *Eleketa* programaren baitan Hazparnen bildu lekukotasunen lehen irakurketa antropologiko bat eskaini zuen. Denbora berean, Polo Garat argazkilariak berak egin lehen argazkietatik batzuk erakutsi zituen. Gaualdi honek hasiera eman zion 2020an Hazparneko biztanleekin garatu zen proiektu parte hartzaileari. 2020ko hasiera eta 2021eko ekaina artean, Hazparneko biztanleak, antropologoa eta argazkilaria hainbat aldiz elkartu dira zapatagintza garaiko bizipenak, oroitzapenak eta tokiak (taneriak, ostatuak, lantegiak, bizitegiak, ostatuak) aipatzeko.
- Abentura eder hau bigarren eta azken hitzordu batekin bukatu zen 2021eko irailaren 19an. Aitzpea Leizaola-k mintzaldi bat eskaini zuen Elgar Zentroan, gaurko Hazparnek eta hazpandarrek zapatagintzaz duten bizipenaz. Ondotik, hiriguneko lau leku sinbolikotan, biztanleek beren lekukotasuna ekarri zuten historia honi buruz. Ibilaldi musikal eta komentatu honen ondotik, Polo Garat-en argazki erakusketa ikusi ahal izan da mediatekan, egun horretan eta ondoko aste guzian ere (irailaren 18tik 24ra).

1.3. MEDIAZIO EKINTZAK BULTZATU

1.3.1. Ikerketen eta gogoeten hedapena eta balorizazioa

➤ *Eleketa* erakusketa ibiltariaren hedapena

EKEk *Eleketa* fondoaren aberastasuna ezagutarazi nahi du eta 2020ko udazkenean Hazparneko lurraldean estreinatua izan den *Eleketa* erakusketa helburu horrekin sortu du.

80 metro karratuko erakusketa elebidun (euskara-frantsesa) eta interaktibo honek aukera desberdinak eskaintzen dizkio publikoari:

- Gordinik ala editorializatuagoak (erreportaje tematiko batzuen bidez) diren lekukotasun zati batzuk kontsultatzeko parada (bederen zati bat lurraldean filmatua izan den lekuko bakoitzarentzat)
- Lurraldean filmatu artxibo irudien kontsultatzeko parada (Frantses telebista publikoak 1971 eta 1986 urteen artean hedatu Maite Barnetche-ren (1941-1986) *Euskal Herria orai eta gero* emankizuna
- Objektuak, argazkiak edo lekukoek utzi beste artxibo batzuk ikusteko parada.

Azpimarratu behar da EKEk erakusketan agertzen diren *Eleketa* fondoko zati guzien transkripzioa eta azpigitulazioa eginga duela (euskaraz edo frantsesez bertsoaren arabera) ahalik eta jende gehienengan iristeko asmoz: euskaldunak, euskara ikasten ari direnak edo erdaldunak.

Bestalde, erakusketaren berezitasuna da instalazio bakoitzeko edukiak ezberdinak direla, aurkezpen lurraldeen eta tokien arabera agerian ezarri nahi diren gaien arabera, horrek hautaketa eta prestaketa lan handia eskatzen duelarik, noski.

Gainera, aldi guziz, EKEk ikasleei zuzendu erakusketaren bisita gidatuak antolatu ditu, hortarako tokian tokiko tematikei egokitu liburuxka bat sortuz.

● 2021eko instalazioak

Hazparne | Pierre Espil mediateka | 2020ko irailaren 25etik 2021eko urtarrilaren 30a arte
Hazparneko Lurraldeko 68 lekukotasunen aurkezpena (Aiherra, Lekuine, Beskoitze, Hazparne, Heleta, Izturitze, Bastida, Makea, Lekorne, Donoztiri).

Bisitari kopurua: 748

EKEk antolatu bisita gidatuetan parte hartu duten ikasleen kopurua: 198.

Donibane-Lohizune | Ducontentia gela | 2021eko irailaren 12tik urriaren 10era

Donibane Lohizune Lurraldeko 78 lekukotasunen aurkezpena (Ahetze, Arbona, Azkaine, Biriatu, Ziburu, Getaria, Hendaia, Donibane-Lohizune, Sempere, Sara, Urruña).

Erakusketaren aurkezpenaren kariatara antolatu animazioak:

- Peio Etcheverry-Aintchart-en mintzaldia *Donibane Lohizuneko historia deskubritu* gaiaren inguruan (irailaren 16a)
- Proiektzioa eta topaketa Lur Olaizola egilearekin, *Libertate* filmaren inguruan (irailaren 24a)
- Musika eta ipuinak euskaraz Koldo Amestoy ipuin kontalariarekin: *Elkano battela, xumea baina gurea* ikusgarria (urriaren 1a)

Bisitari kopurua: 582

EKEk antolatu bisita gidatuetan parte hartu duten ikasleen kopurua: 130.

Donibane-Garazi | Herriko Etxea | 2021eko azaroaren 6tik abenduaren 4ra

Garazi-Baigorri aldeko 106 lekukotasunen aurkezpena (Ahatsa-Altzieta-Bazkazane, Aintzila, Ainhize-Monjolose, Aldude, Anhauze, Arnegi, Azkarate, Banka, Bidarra, Duzunaritze-Sarasketa, Buztintze-Hiriberri, Behorlegi, Zaro, Ezterenzubi, Gamarte, Irulegi, Izpura, Jatsu, Lakarra, Lasa, Lekunberri, Mendibe, Ortzaize, Donibane-Garazi, Donazaharre, Arroza, Eihalarre, Baigorri, Uharte-Garazi, Urepele).

Bisitari kopurua: 700

EKEk antolatu bisita gidatuetan parte hartu duten ikasleen kopurua: 172

● Etortzekoak diren erakusketak :

Bi erakusketa sortzen hasiak dira :

- Eleketa Baigorri, 2022ko apiril-maiatzeko pentsatua, Garazikoari konparatuz, lekuko berriekin eta eduki pedagogiko egokitu batekin.
- Eleketa Xiberoa 2023an. Bere asmakuntza 2021an hasia, bi urtez segituko da, Euskal kulturari sensibilizazio estrategi berrian sartzeko, helburu pedagogiko batekin.

➤ Eleketa ukipen-pantailen hedapena

2021ean, EKEk bi ukipen-pantaila interaktibo independente garatu ditu, *Eleketa* erakusketa bilketaren lurraldeetan ibili ondotik ere, publikoak erakusketan aurkeztuak izan diren lekukotasun zatiak azpiztituluekin ikus ditzan. Ukipen-pantaila horiek urrik urrik uzten ditugu 6 hilabete inguruko iraupena duten hitzarmen batzuen bidez. Multimedia kiosko horiek *Eleketa* programaren eta ahozko memorioaren ataria den www.mintzoak.eus webgunearen

komunikazio hobe bat ahalbideratzen dute, tokiko jendea errezebitzen duten lekuetan (mediatekak, herriko etxeak, turismo bulegoak, kultura zentroak...)

Horietarik bat Hazparneko Pierre Espil mediatekan ezarria izan da 2021eko otsailetik irailera arte eta beste bat Donibane Lohizuneko Mediatekan da 2021eko urri hastapenaz geroz.

➤ **Alemanian preso egon Euskaldunen grabaketen balorapena (1916-1917)**

Antoine Suhas-en gutunaren argitaratzea Mintzoak.eus-en

Berlingo Humboldt Unibertsitateko Lautarchiv-ek soinu-artxibo kopiekin batean Euskal kultur erakundeari utzi dokumentazioan, *Euskaldun baten letra mila bederatzi ehun ta hamazazpian* Antoine Suhas-en letraren eskuizkribua harribitxi baten pare agertzen da.

Stolberg-en zelarik 1917ko agorrilaren 1ean idatzia, Antoine Suhas-ek aurkezpenaz gain zehatz-mehatz deskribatzen ditu: 1914ko abuztuaren 1etik 1917 urte arteko ibilbidea; orduko baserri giroa eta garaiko eskulanak Euskal Herrian gerla deklaratu egunean; mobilizazio eguna; gerlara partitzea Baionatik eta lehen guduak; etsaien eskuetara erortzea eta presoaldia Alemanian; gerlaz dituen pentsaketak, sorterrian utzi ahaideak beti gogoan dituela.

Interes handiko altxor hau sarean emana izan da Mintzoak.eus gunean. Gutuna bi bertsiotan aurkeztua da:

- Euskaraz: parez pare emanak, jatorrizko eskuizkribuaren transkripzioa eta egungo arau ortografikoetara (euskalkien / batuaren estandarrena) egokitu bertsioa, Jasone Salaberriak egin.
- Euskaraz eta frantsesez: parez pare emanak, Jasone Salaberriaren jatorrizko eskuizkribuaren transkripzioa eta Kattalin Totorikaren jatorrizko frantses itzulpenaren transkripzioa. 2021eko apirilaren 8an zendu den Jasone Salaberria ohoratu nahi dugu eta egin duen lan baliosarentzat bihotzez eskertu.

Gutunaren publikazioak oihartzun mediatiko zabala ukan du, izan prentsa idatzian, ala irrati-telebistan:

- Prentsa idatzian: Sud-Ouest (2021-02-14) ; Ipar Euskal Herriko Hitza (2021-02-19) ; Le Parisien – Journal du Dimanche (2021-03-21)
- Irratian: RTL, les Matinales d'Yves Calvi (2021-04-21)
- Telebistan: France 3 Euskal Herri Pays Basque (2021-04-15), youtube katean dagoena ere; TF1. 13heures (2021-04-29) ; LCI – (2021-04-29)

Mediazio kulturala

Maite Deliart-ek Angelun ematekoa zuen hitzaldia, 2020an programatua izan zena, 2021ean ere ezeztatua izan da COVID pandemiaren aurkako neurrien ondorioz.

Antolatzaile: Angeluko Ikasleak elkarte.

➤ **Euskal Etnopoloaren labelaren kariatara antolatu ekintzen eta aktualitatearen hedapena**

Etnopoloari buruzko www.eke.eus atariko atalak (etnopoloa.eus helbidean ere kontsultagarri dena) labelaren kariatara EKEk antolatu mintzaldiei eta kolokioei buruzko bideo grabaketak aterpetzen ditu (mintzalariek horien hedatzeko baimena ematen dutelarik).

2021ean, itzultzaileen itzulpenak grabatuak izan dira euskarriak euskaraz eta frantsesez eskuragarri izan daitezen, eta hori, mintzalariaen hizkuntza edozein izanik ere.

Horrela, 2021eko ekainaren 17 eta 18ko *Artxiboa eta Sorkuntza* kolokioaren bideo grabaketak etnopoloa.eus atalean daude.

Bestalde, 2018ko ekainaren 29an iragan zen *Euskararen munduak: erronkak eta perspektibak* izeneko kolokioaren aktak sarean ezarriak izan dira ere.

Azkenik, Euskal Etnopoloaren aktualitatea eta iharduerak publikoari jakinarazi ditugu albiste hari eta agenda elebidun berezi baten bidez. Informazio horiek, hilabete guziz igortzen dugun Etnopoloaren boletinean berriz hartuak izan dira gainera. Horrez gain, komunikazio hori EKEren sare sozial ezberdinetan deklinatua izan da, bai eta bere hilabeteroko informazio boletinean ere.

1.3.2. Ondare datubaseetarako sarbideen erraztea

➤ *Eleketaren kariatara bildu fitxategien sailkatzea eta berriz izendatzea*

Fitxategien kontserbazioa

Eleketa programako lekukotasunak Departamenduan artxibatuak dira. Horrez gain EKEren kontsultagunean ikusgai dira: hauen bilaketa erreteko gisan, fitxategi numerikoak sailkatuak izan dira eta ber-izendatuak.

➤ *Ahozko memoriari buruzko Mintzoak atariaren aberastea*

Oroitaraz dezagun atariko ikus-entzunezko eta soinuaren dokumentuak EKEren egoitzan kontsultagarri direla bertsio numerizatu batean (ahozko ondareari zuzendutako kontsultagunean), artxibo horien jabe ezberdinen baimenekin.

- Aldudarrak elkartaren eta Mikel Erramouspéren bideo artxiboen balorapena

Alduden kokatua den kultur elkartea bere ikusentzunezko artxiboen numerizatzen hasia da, EKEk ildo horretan daukan esperientziaz baliaturik. Mikel Erramouspé Aldudarrak elkartaren lehendakariak, bere artxibo pertsonalak ere digitalizatu ditu. EKEk Garazi-Baigorriko lurraldean antolatu duen *Eleketa* erakusketa elikatu dute eta erreportaia batzuekin aberastu

(Adrien Gachiteguy, Albert Chabagno eta Mano Curutcharry, Manuel Alzugaray Urepeleko ikazkina). Mintzoak gunean publikatuak izan daitezen adeitasunez onartu dute.

- ***Eleketa* erakusketaren gehigarria**

Eleketa erakusketa ibiltariaren abiatzearekin, Mintzoak atariak garapen bat izan du 2021ean. Ondorioz, biografia eta ikus-entzunezko lekukotasun zati gehiago eskaintzen ditu.

Alabaina, Donibane Lohizuneko eta Donibane Garaziko ezarpenak aitzin, erakusketan agertzen ziren lekuko guzien aurkezpenak webgunean ezarriak izan ziren (biografia elebidunak eta bideo zati bat dasta bezala).

Hazparneko Lurraldeko aurkezpeneko edukientzat egina izan den bezala, Donibane Lohizuneko eta Garazi-Baigorriko *Eleketa* fondoko azpituluekilako bideo zatiak 2022an Mintzoak atarian ezarriko ditugu jendeen esku. Horrela, erakusta bisitatu dutenek eta besteek ere, bildutako lekukotasunen abestasuna berriz preziatu edo deskubritzen ahalko dute. Horrela, denetan, 500 bideo zati eta 160 lekuko fitxa baino gehiago gehituak izanen dira Mintzoak atarian.

- **Maurice Abeberry-ren omenezko artxiboen bilduma numerikoaren aurkezpena**

abeberry.mintzoak.eus helbidean kontsultagarria den lekukotasunen eta artxibo dokumentuen bilduma numeriko hau 2021eko maiatzaren 27an prentsari aurkeztua izan zaio Uztaritzen.

Aurkezpen hartan, *Maurice Abeberry gogoan* elkarteko kideek beren lekukotasunak eman zituzten Maurice Abeberry-k egin ekarpenetaz, izan abokatu edo kultura eragile bezala, baina bereziki euskal pilotaren nazioarteko garapena sustatu duen kirol agintari bezala.

➤ **France Bleu Pays Basque irratiko euskal artxiboen balorapena (1970-1990)**

France Bleu Pays Basque irratiko euskal artxiboak 2000. hamarkadaren hastapenean hasi banda magnetiko batzuen numerizazio kanpainatik heldu dira. Horrela, 230 grabaketa oren inguru kopiatu ahal izan dira. Fondo horrek egiazko altxorrak biltzen ditu, hala nola 1969an Uztaritzen iragan *Ez dok amairu* kontzertuaren grabaketa (eta Peio eta Pantxoa bikotearen lehen agerraldi publikoa), Artze anaien parte hartzea Baionako Kontserbatorioan (1985), Mattin bertsulariaren (1981) eta Etxahun-Iruri-ren (1979) ehorzketa meza, Beñat Galtxetaburu-ren azken dantzaldia Lasan (1990), baina ere Maite Barnetche eta Jan Battitt Dirassar-en euskal magazinaren emankizun ezberdinak ere (1976-1984). 2001ean, Kattalin Totorika-k fondo honen dokumentazio lana egin zuen EKE-rentzat. EKE-k artxibo horien eta dagokien katalogoaren CD eta disko gogor gainera kopia dauka, irratiarekin 2000. urtean izenpetu eta 2003an berriz ikusia izan den hitzarmenaren kariatara.

2021ean, EKEk hitzarmen bat izenpetu du fondoaren jabe den INArekin (Frantziako ikus entzunezko erakunde nazionala), fondo hori publikoaren esku zer baldintzetan ezarriko den zehazteko. Maite Barnetche-ren fondoarentzat gertatu bezala, hitzarmen horrek grabaketa horiek gure kontsultagunean entzuteko baimena ematen du.

➤ **Xipri Arbelbideren soinu artxiboen (1974-1998) balorapena**

2020ko ekainean izenpetu hitzarmen baten bidez, Xipri Arbelbide idazle eta kazetariak bereak diren edo berak egin dituen soinu grabaketak EKEn utzi ditu, bai eta dokumentu horien deskripzioa egiteko eta horien ulertzeko baliosak diren xehetasun guziak ere (2 716 MP3 fitxategi - 1 382 oreneko bolumena). Balore handiko corpusa da, aniztasun handia baita grabaketa horietan. Alabaina, euskaraz diren 1974aren eta 1988aren arteko grabaketa horiek elkarrizketa andana bat jasotzen dituzte tokiko bizi sozio-ekonomikoko eta kulturalako eragile parrasta batekin eginak izan direnak. Xipri Arbelbidek EKEri baimena ematen dio aipaturiko dokumentuak bere dokumentu fondoan sar ditzan. Bestalde, fondoaren bilaketa tresna interneten jartzea onartzen du ere. Halaber, ilustrazio bezala, soinu zati batzuk sarean ezartzen ahalko ditugu ere.

2021ean, grabaketa horiek publikoaren esku ezarriak izan dira. Alabaina, hitzordua hartuz, ahozko memoriari buruzko EKEren kontsultagunean entzungarri dira.

Hedapen horretaz gain, EKEk fondoaren lehen balorapen lan bat abiatu du, ondoko lekukoekin egin ziren Bigarren Mundu Gerlari buruzko irratietan elkarrizketa batzuen transkripzioetik abiatuz: Rufino Jauregi (1913-2006), Domingo Joanteguy, Paul Delpech (1911-2009), Pierra Inchauspe (1917-2001), Jan Battitt Larralde (1914-2000), Jean-Pierre Heguy, Janine Elissetche (1925-1995), Marie-Séverine Fontan-Sallaberry (1912-2013), Elisabeth Errecart (1920-2007), Kaïet Sallaberry (1917-1987), Arño Dorre (1914-2001), Pierre Aramendi (1917-1999).

➤ **Departamenduko Artxibotegiko 18 AV bilaketa tresnaren datu-uztaren prestaketaren bururapena – Euskal itsas ondarea - Donibane Lohizune / Ziburuko portua**

Pirinio Atlantikoetako Departamenduko Artxibotegiarekilako partaidetza baten karietara, www.earchives.le64.fr webgunean publikatu bilatze tresna baten datu-uzta esperimentazio bat eraman izan zen 2018an.

Helburua euskal dantzari buruzko *Eleketa* programaren kanpaina baten barneko metadatuak (19 AV datubasea) eskuragarri bilakaraztea zen (lekukoen biografiak, sekuentzien deskribapena). Hori guziaz, euskarazko itzulpen batez aberasturik.

2021ean, EKE orain Departamenduko Artxibotegiaren webgunean osoki argitaratua den euskal itsas ondareari buruzko 18 AV (Donibane-Lohizune/Ziburuko portua) bilaketa tresnaren datu-uzta gauzatu ahal izateko garapen informatikoetaz arduratu da.

2. EUSKAL KULTURA TRANSMITATU ETA EDITATU

2.1. PROIEKTUAK SUSTATU BITARTEKARITZA KULTURALAREN ZERBITZUKO

2.1.1. Sentsibilizazio tresnen eta ekintzen gauzatzea

➤ EKEren politikaren zehaztea Heziketa artistikoaren eta kulturalaren alorrean

Herri elkargoak Heziketa artistiko eta kulturari buruz, ikerketa lan berezi bat eraman du 2021ean.

EKE, eragile gisa galdezkatua izan da eta zuzendariak antolatuak izan diren 5 mintegietan parte-hartu du. Ikerketaren emaitzak, erakunde eta hautetsier aurkeztuak izan dira.

Emaitzak eta erabakiak aurkeztuak izanen dira 2022an.

➤ eke.eus ataria eta eduki numeriko editorializatuen ekoizpena sarean

www.eke.eus webgunearen 2021eko estatistikak:

Sesioak (bisitak): 291 575 (+ % 3.1 / 2020)

Erabiltzaileak (bisitariak): 224 240 (+ % 2.8 / 2020)

Ikusitako orrialde kopurua: 749 855 (+ % 8.9 / 2020)

Kalitatezko edukiak proposatzea, publiko guzientzat eskuragarri, hori da EKEren webgunearen erronka nagusietariko bat.

Helburua euskal kulturaren aldeko sentsibilizazio eta Heziketa artistiko eta kulturala laguntzea dira, irakurketa maila eta sartze osagarriak hobetsiz.

Tematika kulturalen tratamendu editorialak dokumentu fondoen balorazioa (Mintzoak atariko datu-baseen zatiak, adibidez), multimedia zaintzeko ekoizpenak (bideoak, irudiak) eta laguntzaile/pertsona lagungarrien artikuluak uztartuko ditu.

Atal honek eskatzen duen inbertsioa kontutan harturik, garapen editorialak progresiboak eta denboran mailakatuak baino ezin dira izan.

2021ean, EKEk proiektu editorial desberdinei lehentasuna eman zien.

- **Txosten tematiko baten osatzea Lapurdiko eta Nafarroa Behereko euskal antzerkiaz (1921-2021)**

2021ean, EKEk txosten tematiko aberatsa osatu du euskarazko antzerkiaren 100 urteen inguruan. Lana, Daniel Landart-ek karia hortara idatzi liburu batean oinarritzen da. 2021ean, txosten horren zati bat publikatua izan da.

Txosten hau, denboran Ipar Euskal Herriko antzerki taldeen federazioa zen EATBren artxibo eta argazki andana batez aberastua da. Besteak beste, 62 antzerki testu numerizatu badira (jatorrizko testuak, itzulpenak eta egokipenak), idazle ezagunenak direnak (Lafitte, Iratzeder, Dufau, Guilsou, Larzabal, Monzon, Landart, Etxaide), baina batzuetan ere idazle anonimoenak.

Eleketa bilketa programaren kariatara bildu lekukotasun batzuek Daniel Landart-ten testua ilustratzen dute ere. Txosten hori osoki argitaratuko dugu euskaraz eta frantsesez 2022an.

- **Euskal kulturaren *timeline*-ak: ikuspegi kronologiko interaktiboak**

Foku berezi batzuen bidez, denbora-sartzeak, eke.eus atarian jorratu gai kulturalen eta artistikoen jatorriari eta garapenari buruzko begirada orokor bat eskaini dezake.

Trinkoagoa den irakurketa maila honekin, publikoaren jakin-mina piztu nahi dugu, ondotik proposatutako gaiak sakontzera gomitatzeko. Helburu horrekin, 2021ean EKEk euskal kantuari eta musikari buruzko *timeline* batzuk proposatu ditu, esperimentazio gisa.

Interaktiboak izanik, dokumentu fondo berezi batzuk (argazkiak, lekukotasunak, bideoak, soinuak...) agerian emateko parada eskaintzen dute.

Besteak beste, Jon Bagües-i (Eresbil musikaren euskal artxiboaren lehengo zuzendaria) eta Gotzon Barandiaran-i (idazlea) galdetu diegu *timeline* bana idaztea, bata 1826 eta 1946 urteen arteko kantu bildumetaz, bestea euskal musikaren eta literaturaren arteko harremanetaz. Fred Berruet-ek (musika kronikalaria) ere timeline bat osatu du euskal rockaren historia markatu duten diskoetaz. Desmartxa honekin bat egin behar luketen beste parte hartzaile batzuekin harremanetan sartu gara ere.

Lehen kronologiak 2022ko hasieran argitaratuak izanen dira.

- ***Olentzero kantuz* musika baliabideak sarean**

Olentzeroren Lagunak elkarrekin Euskal kultur erakundeari dei egin dio, duela bost urte Baionako eskolek eta ikastetxeek, bai eta hainbat artistek eman zuten kontzertuaren grabazioak publikoaren esku ezartzeko asmoz. Oraindanik, haurrek, beren burasoek eta irakasleek zati horiek gure webgunean aurkituko dituzte (olentzero.eke.eus) eta Olentzero kantuz ospatzen ahalko dute.

Musikarien eta kantarien baimenarekin sarean ezarriak izan diren kantuak eta bideoak,

2016ko abenduaren 11n Baionako Lauga gelan eskaini *Olentzero Kantuz jalgi hadi Baionara* kontzertuaren grabaketatik hartuak dira.

- **Partitura bilduma baten garapena euskal koru kantuan aritzeko**

Tokiko musikari batzuen laguntzarekin, badu orain zenbait urte Euskal kultur erakundeak partitura numerikoen bilduma bat publikoaren esku ezartzen duela koru kantuen praktika sostengatzeko asmoz.

Jo Maris harmonizatzaileak adibidez, bere fondoa urririk eskaini dio EKEri. 2021ean, 35 partitura berri ekarri ditu, Alexandre Lesbordes (1912-1969) kalonjearen *Airez-aire* bildumaren transkripzioa eginez. Lan hori abiatu aitzin, Euskal kultur erakundearen laguntzarekin, eskubidedunen baimena eskuratu du.

Biarritzeko Itsasoa koruko zuzendaria den Frédéric Sorhaitz-ek ere EKEren bilduma aberastu du, ahots desberdinentzat harmonizatu ehunka partitura eskainiz.

Horrela, 2021eko bukaeran, 950 partitura baino gehiago proposatuak ziren eke.eus atarian.

➤ **Zineskola dispositiboaren koordinaketa**

Hastapen batean, *Arratoi pirata*, *Kerity* eta *Lur eta Amets* filmak eskolentzat hiru hilabetez (otsailetik maiatzera) proiektatu nahi genituen lurraldeko zinema gela horietan: Atalante (Baiona), Le Royal (Biarritz), Le Sélect (Donibane Lohitzune), Haritz Barne (Hazparne), Itsas Mendi (Urruña), L'Aiglon (Kanbo), Maule Baitha (Maule), Complexe Saint-Louis (Donapaleu), Le Vauban (Donibane Garazi), Les Variétés (Hendaia) ahal bezain ikasle biltzeko asmoz.

Bainan pandemiak plana aldarazi du... Maiatzaren 19ko zinegelen ber-idekitzearekin, hiru filma proiektzioen epea ekainaren 29a arte luzatu dugu. Aurretik izena eman zuten 5600 ikasletik 2627 haur hurbildu ahal izan dute testuinguru berezi honetan.

Urtero bezala irakasleei zuzendutako formakuntza eguna mantentzea nahi izan dugu, distantzia moduan izanik ere. Martxoaren 31an EKE eta IKASen egoitzetatik 50 bat irakasleei filmaketa ustiapen aurkezpenak eskaini zaizkie, ordenagailuz.

Urteko berritasuna *Lur eta Amets* filmarekin izan da, Euskal Herrian ekoiztua izan baita. Horregatik, filmaren ekoizlea Miren Berasategi eta egilea, Imanol Zinkunegi, formakuntza egunean irakasleekin topaketa birtuala batera gomitatu ditugu eta horrela filma hobeki ulertzeko parada izan da.

➤ **Collège au cinéma dispositiboaren tokiko lan taldean parte hartzea**

Euskal Kultur Erakundeak (EKE) tokiko lan taldearen hainbat bilkuretan parte-hartu du, euskarazko laugarren hautuzko film bat *Collège au cinéma* dispositibo nazionalean proposatzeko helburuarekin. Horrela, EKEk filmak hautatzeko prozesuan parte-hartu du, 6. eta 5.eko ikasleentzat, *Lur eta Amets* eta 4. eta 3.eko ikasleentzat *Nora*. Guztira, lurraldeko 15 ikastetxeek eman dute izena eta esperimentazio honetan parte hartuko dute 2021-2022an. Proiektzioez gain, Cinévasion-ek antolatutako bitartekaritza tailerretan parte hartzeko aukera ukan dute (zuzendariekin eta industriako profesionalekin topaketak).

Bestalde, euskal zinemagintzaren alorrean duen ezagutzari esker (adituak, bibliografia, filmografia...), EKEk ustiapen pedagogikoak idazten lagundu du. Esku anitzeko lan honek epe mugatuetan kalitatezko edukiak sortzea ahalbidetu du. Kolaboratzaile bakoitzak duen jakintza ekarri du bere gaitasun esparruan (filmaren analisisa, testuinguru kulturala eta linguistikoak, euskal zinema, txostenaren antolaketa eta idazketa...) Dokumentu hauek urriaren 13 eta 20an aurkeztuak izan dira irakasleei zuzendu aitzinproiektioetan.

Azkenik, Departamenduak antolatu *COTECH*, « *éducation à l'image* » topaketan parte hartu du, *Collège au cinéma*-n izan den esperimentazioa aipatzeko eta irudi hezkuntzan «egin» deitzen den hirugarren zutabeari buruzko gogoeta bat abiatzeko.

➤ **Euskarazko Kamishibai-buruzko lantaldearen ko-animazioa**

Osasun egoeragatik egitasmo hori pausan emana izan da.

➤ **Irakurketa kutxen sortzeko egin elkarlana**

Osasun egoeragatik egitasmo hori pausan emana izan da.

2.1.2. Euskal kulturaren aldeko sentsibilizazio ekintzen ko-antolaketa

➤ **Irakurketa publikoko profesionalen sareari zuzendu egun profesionalen ko-antolaketa**

2014az geroz, BILKETA proiektuarekin bat eginik, Euskal kultur erakundeak, Baionako Mediatekaren eta Biblio64-ren (Pirinio-Atlantikoetako departamendu-liburutegi ohia) partaidetzarekin, euskararen eta euskal kulturaren inguruko sentsibilizazio egunak antolatzen ditu (euskaraz bat-bateko itzulpenarekin frantsesera) irakurketa publikoaren profesionalen sarearentzat. Osasun egoerak egun hauen antolaketa moldaketa eta egokitzapena behartu du. Hala nola, urteko lehen topaketentzat webmintegi formatua erabilia izan da eta distantzian antolatuak.

Azpiraratzekoa da, bigarren urtearentzat, Sarako idazleen Biltzarraren kariatara, egun profesional bat antolatua izan dela *Emazteak euskal literaturan* gaiaren inguruan. Liburutegietako langileen sareaz gain, egun horrek beste parte hartzaile batzuk bildu ditu,

besteak beste, Baionako fakultateko Euskal ikasketen sailean diren 15 bat ikasleek parte hartu dute.

Helduendako berritasunen aurkezpena Elkar liburu-dendaren eskutik: literatura, dokumentalak, filmak, musika.

Data: 2021eko urtarrilaren 21a - 10:00-12:00 (webmintegia)

Hizlaria: Peio d'Uhalt

Parte hartzaileak: 13

Haur eta gazte literatura euskaraz:

Data: 2021eko urtarrilaren 28a - 10:00-12:00 (webmintegia)

- Azken hilabeteetako ekoizpenak (0-15 urtekoentzat)
- 2019-2020eko ekoizpenen hautaketa kritikoa
- Animazioentzat erabilgarriak diren albumen hautaketa

Hizlariak: Ana Imaz (Libreplume elkarte), Elise Dilet (IKAS pedagogia zerbitzua).

Parte hartzaileak: 15

Emazteak euskal literaturan

Data: 2021eko urriaren 11a

Tokia: Sara - Idazleen Biltzarreko egun profesionala

- *Emakume ahotsak euskal literaturan* mintzaldia, Iratxe Retolaza Gutierrezen ahotik, literatura-kritikari eta Emagin elkarteko kide.
- Mahai ingurua: *gai feministen argitalpena - nork, nola, nolaz*. Danele Sarriugarte idazle, itzultzaile eta kazetariak animaturik. Katakarak argitaletxea (Iruñea), Susa argitaletxea, Lisipe bilduma (Zarautz), Elkar/Jakin argitaletxea, Eskafandra bilduma (Donostia)
- Irakurketa antzeztuak: Kiribil konpainia
- *Txakur gorria* sormen kolektiboa eta Peru Galbete - Euskal emakume sortzaileen obran oinarritutako performantza artistiko-literarioa.
- Mahai ingurua: *Euskal idazle eta emazte Ipar Euskal Herrian, zein bizipen?* Idazle ibilbidean emazte izateak eraginik ote? Idazten hasterako, idazterakoan, publikatzerakoan, euskal literaturaren plazan? Hizlariak: Maialen Hegi-Luku, Marikita Tambourin, Maddi-Ane Txoperena eta Maddi Zubeldia. Idoia Eraso kazetariak animaturik.

Parte hartzaileak: 70 (haien artean 21 liburuzain eta 15 ikasleak besteak beste)

Euskal argitalepenen berriak

(Haur literatura goizean eta helduendako argitalpenak arratsaldean)

Data: 2021eko irailaren 16a

Tokia: Hazparneko lurralde eremuaren egoitza

Hizlariak: Peio d'Uhalt, Elise Dilet eta Ana Imaz

Parte-hartzaileak: 12

➤ **Presondegian antolatu sentsibilizazio egunen ko-antolaketa**

Baionako presondegian euskal kulturari sentsibilizazio astea - 2021eko uztailaren 6tik 8ra

Euskal kulturaren ezagutza eta sentsibilizazioa EKEren ardatz nagusienetarikoa bat da. Kultur arartekolaritzan eramaten dituen ekintzak publiko mota ezberdinei zuzenduak dira. Horretarako EKEk partaide ezberdinekin egitasmoak garatzeko aukerak biderkatzen ditu.

Hala nola, Baionako SPIP-arekin (*Service Pénitentiaire d'Insertion et de Probation - Baionako presondegiari lotua*) partaidetza hori garatu du, euskal kultura hobeto ezagutarazteko asmoz.

Lehen esperimentazio honentzat, EKEk bere kultur ingeneritza ekarri du euskal kulturaren deskubritzeko tailer ezberdinak proposatuz: euskal kulturaren deskubritzea, dantza, musika eta dantza eta musiken arteko lotura argitan ematen duen tailer bat.

- Uztailaren 6a, asteartea 9:30-11:30: Euskal kulturari sentsibilizazioa (Pantxoa Etchegoin) (Azken momentuko gela arazo batengatik, tailer hori ezeztatua izan zen)
- Uztailaren 6a, asteartea 14:30-16:30: Euskal musika deskubritu (Bilaka, Xabi Etcheverry eta Paxkal Irigoien)
- Uztailaren 7 a, asteazkena 9:30-11:30: Euskal dantza tradizionala (IDB-Ihintza Irungaray)
- Uztailaren 8a, osteguna 9:30-11:30: dantza eta musiken arteko lotura (Bilaka eta IDB - Ihintza Irungaray, Xabi Etcheverry eta Patxi Amulet)

Hamar bat presoek izena eman dute tailerretan parte hartzeko. Horrez gain, SPIPak garatu beste partaidetza batzuei esker, Gaia elkartearekin euskal kirolak deskubritu ahal izan dituzte eta Bilaka konpainiaren emanaldi batek astea bururatu du (Eszena Nazionalak programaturik).

2.2. KULTURA POLITIKETAN EUSKAL KULTURAREN EGITURAKETA ETA GARAPENA LAGUNDU

2.2.1. Euskal kulturaren integrazioa kultura politika publikoetan

➤ **Kultura politika publikoen laguntzea eta osagarritasunen zehaztea**

Zuzendari berriaren etortzearen kari, erakunde desberdinekin eraman elkarlana ber definitzeko parada izan da: hitzarmen amankomun baten idaztea eta laguntzen harmonizatzea izan dira gai nagusiak.

Hortarako, irailetik aitzina, hilabetero batzorde tekniko bat bildu da, instituzio desberdinetako teknikariak eta EKEko zuzendaria biltzen dituenak.

➤ Hirien laguntzea kultura programazioetan

Biarritzeko hiria

Biarritzeko hiria eta EKEren arteko partaidetza aipatzeko bilkurak antolatuak izan dira herriko etxeko talde berriarekin. Lan ardatz berri batzuk landuak izan dira eta gauzatuak izanen 2022an.

Bestalde, euskal artista programazioari laguntza Mintzalasai festibala denboran jarraitu da (ikus elkarteen txostenak).

Azkenik, ekainaren 25ean, Biarritzeko Enbaxadoreen gelan, Pupu Oyhambururi omenaldia antolatua izan da, bere 100 urteen kari. EKEk dantzarien presentzia segurtatu du.

Hendaia hiria

Osasun egoeragatik *Arteak'Abbadian* denbora azkarra behin baino gehiagotan gibelatua izan da eta azkenean ezeztatua.

Donibane Lohizuneko hiria

Donibane Lohizune eta EKEren arteko partaidetzaren karietara animazio ezberdinak antolatuak izan dira. (Ikus *Eleketa* erakusketaren ibiltaritza eta *Ibilki* programa)

Mediateken laguntza kultur programazioan

EKEk bere aholkularitza lana segitu du lurraldeko mediatekentzat (mintzaldi, erakusketa, idazle aurkezpena...).

Osasun egoeragatik animazio gutti mantenduak izan dira.

2.2.2. Kultura alor batzuen egituraketari eta garapenari laguntza

➤ Euskal antzerkia

***Ibilki 2021* programa**

Gero eta Herriko Etxe gehiagoren partaidetzarekin, Euskal kultur erakundeak ipar Euskal Herrian euskarazko antzerkiaren hedapenaren alde eramaten duen politika berri egin du 2021. urtean. Horrela, hamar konpainiaren berrogei bat emanaldi proposatuak izan dira Iparraldeko hamar herriko gela ala toki publikoetan, 3000 ikusle baino gehiago bilduz.

Programaren emanaldiak :

- Martxoaren 22-26 - Etxepare Lizeoa (Baiona): *Amua*, Axut!
- Maiatzaren 21a - Erabilera anitzetako gela (Ziburu): *Amua*, Axut!
- Maiatzaren 29a - Mai du Théâtre Festibala (Hendaia): *Gora!* Collectif Balle Perdue
- Maiatzaren 30a - Mai du Théâtre Festibala (Hendaia): *Lur*, Xake Produksioak
- Ekainaren 4a - Plaza Xoko gela (Baigorri): *Amua*, Axut!
- Ekainaren 23a - Uhabiako Bide Berdea (Bidarte) - Zuhaitz batekin solasean

- Agorrilaren 1a - Erromano zubia (Azkaine): *Bidea*, Compagnie Jour de Fête
- Agorrilaren 14a - Eyherraberri auzoa (Donibane Garazi): *Bidea*, Compagnie Jour de Fête
- Agorrilaren 23a - Les jardins de Bakea Hotelaren baratzeak (Biriatu): *Bidea*, Compagnie Jour de Fête
- Irailaren 10a - Mendi Zolan gela (Hendaia): *Atzerrian Lurra Garratz*, Artedrama
- Irailaren 19a - Lizaga Gaztelua (Hiriburu): *Bidea*, Compagnie Jour de Fête
- Urriaren 8a - Bordagaineko Dorrea (Ziburu): *Zuek*, Rouge Elea
- Urriaren 9a - Maule Baitha gela (Maule): *Kutxetan Ibilki*, Compagnie Nanoua
- Urriaren 10a - Harriet Baita karpa (Donibane Lohizune): *Amua*, Axut!
- Urriaren 30a - Kiroleta gela (Azkaine): *Gure Xahararak*, Bonbon Beltz Konpainia
- Azaroaren 5a - Mendi Zolan gela (Hendaia): *Amua*, Axut!
- Azaroaren 13a - Biltoki gela (Azkaine): *Iki Mihi Klik*, Eleka Konpainia
- Azaroaren 13a - Maule Baitha gela (Maule): *Gure Xahararak*, Bonbon Beltz Konpainia
- Azaroaren 20a - La Perle gela (Hiriburu): *Amua*, Axut!
- Azaroaren 21a - Harriet Baita karpa (Donibane Lohizune): *Besteen Kalea*, Compagnie Jour de Fête
- Azaroaren 22a - La Perle gela (Hiriburu): *Kutxetan Ibilki*, Compagnie Nanoua (Ikasleei zuzendutako emanaldiak)
- Azaroaren 23a - Parrokiako sala (Ziburu): *Kutxetan Ibilki*, Compagnie Nanoua
- Azaroaren 23a - La Luna Negra Kabareta (Baiona): *Tomiris*, Atx Teatroa
- Abenduaren 1a - Théâtre Antzokia (Bidarte): *Lur*, Xake Produizioak
- Abenduaren 12a - Biltoki gela (Azkaine): *Besteen Kalea*, Compagnie Jour de Fête
- Abenduaren 16a - Mendi Zolan gela (Hendaia): *Kaskarot*, Atx Teatroa
- Abenduaren 7, 8, 9a - Malégarie eskola Baiona, Albert 1er, Jean Moulin eskoletan (Baiona), *Besteen Kalea*, Compagnie Jour de Fête (Ikasleei zuzendutako emanaldiak)

Euskal antzerkia Etxepare Lizeoan

Baionako Etxepare lizeoa eta Euskara bulegoarekin partaidetzan, EKEk antzerki talde baten egonaldia lagundu du ikasle eta antzezle arteko topaketa ikastetxe horretan. *Axut!* taldekoek *Amua* antzezlanaren zortzi emanaldi eskaini dituzte Etxepare lizeoan martxoaren 23tik 26ra. Baionako Etxepare, Cassin, Villa Pia eta Largenté lizeoko 500 bat ikaslek parte hartu dute emanaldietan baita ere artistekin antolatu trukaketetan.

Ibilki katalogoa

Antzerkitik harat, Euskal kulturaren hedapen eskeintza garatzeko xedearekin, katalogo bat eraikitzen ari da, ikusgarritasuna, erakusketa, mintzaldi eta beste arloetako sorkuntzak bilduko dituenak.

Katalogo honen egiaztatzea 2022an iraganen da.

➤ Euskal zinema

Hausnarketa taldea

Zinema eta ikus-entzunezko alorretan erakundeek inplikazioak argitzeko eta antolatzeke, EKEk talde horren bilkuretan parte hartu du Departamendua, EEP, Akitaniako Berriko Alca agentzia, Herri Elkargoa, Euroeskualdea eta Akitania Berriko Drac egiturekin.

Talde horrek Graxi Irigaray-en euskal zinemari buruz ikerlana segitu egin du, besteak beste. Graxi Irigarayek EHU/UPV-ren NOR taldeko partaidea da eta unibertsitatearen babesarekin darama bere lana.

Egitura guzi horien arteko hitzarmen bat idaztekotan dago.

Hedapenari laguntza

Euskal zinemari laguntza EKEren helburu nagusienetariko bat da. Pandemiak atsedean bat hartu eta berehala zine hedatzaile desberdinei gure sostengua ekarri diegu, batez ere film egile bira batzuen kari (ikus *Cinévasion*, *Cinéma et Cultures* elkarteei emandako laguntza).

Gainera EKEk ezin besteko gain balioak proposatu ditu *Atarrabi eta Mikelats* filmaren birarako Maddi Oihenart, Thierry Biscary eta Jérémie Garat kontzertuak lagunduz Donibane Lohizuneko Sélect eta Baionako Atalante geletan. Baita ere Pablo Agüeroren *Akelarre* filmaren kari Claude Labat-ek eskaini hitzaldiak lagunduak izan dira Donibane Lohizunen (agorrilak 23), Baionan (irailak 4) eta Bordaleko Utopia (irailak 14) eta Euskal Etxean (irailak 16).

EKEk Oskar Alegriaren *Zumiriki* filmaren hedapena lagundu du Donibane Lohizuneko Le Sélect (uztailak 12) eta Mauleko Maule Baitha (uztailak 14) geletan baita ere Bordaleko Utopia gelan (azaroak 6). Koldo Almandozen *Oreina* filma ere sustatua izan zen Utopia gelan (azaroak 4).

Ama Lur Toyidoshi Himeda-ren filmaren aurkezpena berriro pusatua izan da Covid-arengatik. 2022ko udazkenean aurreikusten da egoera hobetzen bada, batez ere Japonian, filma egilearen semeen presentzia konfirmatzeko. Filma japonesez izanik, euskarazko azpititulazio lanak egin dira.

Zinema kanpoan

Cinévasion elkarte eta herriko etxeekin partaidetzan, kalitatezko eskaintza kulturala bat proposatu izan zaie ondoko herriei Asier Altunaren *Amama* eta Telmo Esnalen *Dantza* filmekin, 600 ikusle baino gehiago bilduz:

- *Amama* - Ortxaieko frontoian - uztailak 20
- *Dantza* - Biriaturko frontoian - uztailak 21
- *Dantza* - Azkaineiko Kiroleta gunean - agorrilak 10
- *Dantza* - Ziburuko frontoian - agorrilak 25 (gibelatua)
- *Dantza* - Bastidako frontoian - agorrilak 30

➤ Euskal dantza

Iparraldeko Dantzarien Biltzarraren jarraikitzea eta sostengua (ikus elkarteen txostenak).

➤ Euskal literatura

- **Sarako Biltzarrari laguntza, egun profesional baten antolakuntzan**

EKE Sarako Biltzarraren partaidea da bere sorreratik eta bere bilakaera segitzen du urtez urtez. 2020an bigarren aldikotz lan talde bat bildu zen egun horren antolakuntzarentzat (EKE, Biltzarra, Sarako hiria, Bilketa). Biltzarra 2020an mantendua izan bazen, egun profesionala ezeztatua izan zen. 2021ean beraz programatua izan da urriaren 11an (Emazteak eta euskal literatura gaiaren inguruan - ikus BILKETA egun profesionalak).

- **EKE-Elkar literatura beka literatur beka**

Ipar Euskal Herriko euskarazko literatura sorkuntza sostengatzeko asmoz, Euskal kultur erakundeak eta Elkar Fundazioak *EKE-Elkar literatura beka* izeneko beka berria bultzatu dute. 2000. urtean sortu *Gazteluma* saria ordezkatzeko du eta euskaraz idazten duten ipar Euskal Herriko idazle guzietan zuzendua da. *Gazteluma* bezala, hau ere bi urtetarik behin iraganen da ipar Euskal Herriko sorkuntza literarioa sustatzeko asmoarekin, hala nola talenTu berriak eta sorkuntzaren aniztasuna nahiz aberastasuna argitan emanez. 6000 euroko beka hori euskaraz sortzen duten Ipar Euskal Herriko autoreei zuzendua da. Diru zama honen bidez, egileei beren sorkuntza prozesua baldintza onetan eramateko aukera eskaini nahi zaie, ondotik argitaratua izanen den lan baten sortzeko gisan.

Aurten, literatura generotzat eleberri grafikoa eta komikia hautatuak izan dira (edizio bakoitzean aldatuko da).

Lehen edizio honentzat, kalitate handiko sei proposamen eskuratuak izan dira, hauetarik zonbaitek beka eskuratzeko merezi zutelarik. Katixa Dolharé-Çaldumbide-k eta Joseba Larratxe-k osatu epaimahaiarentzat hautu baten egitea konplexua izan da. Haien hautaketa egiteko, irizpide zehatz batzuetan oinarritu dira: aurkeztu lanaren kalitatea, proposamenak euskal literaturaren alorrean ukan lezakeen ekarpena, gaiaren berritasuna, edota euskara maila. Delibero luze baten ondotik, Adur Larrea-ren proposamena atxikia izan da. Ziburutarrak *Lurbinttoko ohoinak* izeneko komiki historiko baten egitea aurreikusi du, zuri eta beltzez. Gertakariak, 1789ko Frantses Iraultzaren ondotik iragaten dira eta ohoin banda baten abenturak deskubrituko ditugu.

Egileak, 2022ko martxoa arte badu bere lana bururatzeko eta ondotik, Elkar-ek argitaratuko du.

➤ Euskal musikak: laguntza ekoizpen diskografikoari

Label disko grafikoak eta gaurko musiken eragileen garapena sustatzea da ekintza horren helburua. Covidarekin, pentsatu bilkurak 2022 urtera pusatuak izan dira. Jadanik, hitz hartuak gara *RIM-Réseau des Indépendants de la Musique en Nouvelle Aquitaine* egiturarekin topaketa batzuen antolatzeke.

2.3. TOKIKO KULTURA ELKARTEEI LAGUNTZA ESKAINI ETA AHOLKUAK EMAN

2.3.1. Beharretara egokituak diren laguntzen bultzatzea

➤ **Komunikazioari laguntza**

Ikus 3.3.2 Social-media estrategia baten plantan ezartzea.

➤ **Laguntza elkartekideei: informazio gaualdiak, jarraikitze kolektiboak eta esperimentazio tailerra**

- **PSL64-ekin tokiko jarraikitze dispositiboaren segipena**

2014 an hasi elkarteek jarraikitze programak segitzen du, beti EKEn elkartekideei zuzendua. Profession Sport et Loisirs 64 elkartarekin partaidetzan, (PSL64 - departamendua dispositibo honen eramailea) jarraikitze kolektibo bat eta lau informazio gaualdi proposatuak izan dira (bat 2020an iragan beharra zena)

Laguntza dispositibo honen programa definitzeko, elkarteek beharrei ahal bezain ongi erantzuteko asmoarekin, 2021eko uztailan galdesorta bat zabaldua izan zaie elkartekideei. Erantzunen arabera, beharrak agertu dira komunikazioan (barne et kanpo komunikazioan baita sare sozialen estrategian), kontabilitatean eta elkarte kudeantzan baita laguntzaileen ber-mobilizazioan. Galdesorta hori bi urte guziz hedatzen da eta ondoko bi urteek jarraikitze programa definitzen laguntzen du.

- **Jarraikitze kolektiboa**

Gaia: *Kultura egitura gisa, nere komunikazio estrategia nola eraiki?*

EKEko 5 elkarte kideek jarraikitze honetan parte hartu ahal izan dute:

- Bi'arte
- Iparraldeko Dantzarien Biltzarra
- Dantzalai
- Libreplume
- Musikas

Hizlaria: Cyril Leclerc - *Les Œuvres vives* egituratik

Egutegia: 5,5 egunez iragan da urri eta abendua artean

Saio kopurua: hiru saio kolektibo (3 egun) eta bost bakarkako saio (2,5 egun)

Orotara 4 egun egitura bakoitzarentzat

- **Informazio gaualdiak**

2021an, 4 informazio gaualdi antolatuak izan dira (iraupena: 2-3 ordu). Osasun egoeragatik 3 gaualdi webmintegi moduan antolatuak izan dira eta bakar bat presentzian.

Ohartaraztekoa da aurrekontuaren inguruko gualdi bat antolatua izan dela EKE-ren 2022ko dirulaguntzarako deialdiaren abiatzearen karietara: gualdi honen bidez, elkarte-kideek behin-behineko aurrekontuaren idazketa fase horretan laguntza ukan dute.

- 2021eko urtarrilaren 14a: *Mugaz gaindiko artisten programazioa* – 2020an beharrazena - webmintegia - 25 parte-hartzaile
- 2021eko martxoaren 4a: *Telelanaren araudiak* - webmintegia - 10 parte-hartzaile
- 2021eko apirilaren 8a: *RGPD* - webmintegia - 23 parte-hartzaile
- 2021eko urriaren 9a: *Aktibitate proiektutik behin-behineko aurrekontura* - presentzian - 12 parte-hartzaile
- **ERABIL kolektiboarekin esperimentazio tailerra**

Eskaintza zabaltzeko eta behar berriei erantzuteko asmoz, lehen aldikotz *Erabil* kolektiboarekin partaidetza bat abiatu da. Euskara gure egunerokotasunean hobeki txertatzeko tresna praktikoak bildu, moldatu eta zabaltzen dituen kolektibo bat da *Erabil*.

Horrela, *Komunikazio elebidun eraginkorraren printzipioak: afitxak, webgunea, sare sozialak...* gaiaren inguruko tailer parte-hartzaile bat programatua izan da 2021eko abenduaren 2an, 13 parte-hartzaileekin. Esperimentazioak segituko du 2022an.

2.3.2. Tokiko elkarten proiektuetarako laguntza

➤ Sorkuntza proiektueri laguntza

❖ IKUSGARRIGINTZA

Dantza

- **ATELIER**

Aterpean 2021

***Aterpean* artista egonaldiaren 13. edizioari laguntza**

Aurten, Donostiako Node konpainiaren *Transito* egitasmoa hautatua izan da Aterpean programarentzat. Sorkuntza egonaldiak 2 alditan iragan dira : uztailaren 5tik 16ra Lekuona Fabrikan (Errenteria) eta abuztuaren 16tik 25ra Dantzagunean (Errenteria). Egonaldien garaian, 2 topaketa antolatuak izan dira publikoarekin (uztailaren 15ean eta agorrilaren 26an). Sorkuntzaren estreinaldiak mugaz gaindiko *Dantza Hirian* festibalaren kari egin dira: irailaren 10an Donostian eta 11an Biarritzen.

- **BATCHARTE DANTZA**

Xilko

Joana Olasagasti dantzariaren pieza koreografikoaren ber idazketa eta sortzea. Bakarkako dantza sorkuntza, autobiografikoa. Norberaren eta familiarekin ditugun harremanen eraikitzearen galdera tratatzen da pieza hortan. Sorkuntza ateraldia: 2021eko uztaila.

- **BILAKA**

Kultura proiektu orokorra

2021eko sorkuntzak:

Mitologia ttipiak: gazte publiko gazteari zuzendutako 40 minutuko sorkuntza, lau dantzari eta bi musikarientzat.

Gernika: Martin Harriague-ek sortu pieza koreografikoa, Stéphane Garin-en musika sorkuntzarekin gainean.

Saioak piezaren ber lanketa (filmaketa eta diskaren grabaketarekin)

Pieza koreografikoen hedapena: *Saio Zero, Plazaz, Soka*

Sorkuntza lanaz gain kolektiboak mediazio lan inportantea eramaten du publiko ezberdinei zuzendua (dantzari amatur, ikasle...).

Kolektiboa Baionako Maurice Ravel kontserbatorioan kokatua den Oldeak plataformaren kide da. Dantza garaikide profesionalari dedikatu mugazgaidiko espazio bat garatu nahi du.

Datak:

- *Mitologia ttipiak* sorkuntza egonaldiak: 2021 – sorkuntza ateraldia: 2022
- *Gernika*: sorkuntza egonaldiak: 2021 - sorkuntza ateraldia: 2022ko urtarrila (1 ^{zatia})
- Hedapena: 2021 urtean zehar, osagarri egoeraren arabera

- **ELGAR OINKA**

Elgar Oinka taldearen 50 urteak

Egitasmo hori osasun egoeragatik ezeztatua izan da

- **ELIRALE**

Kultura proiektu orokorra

Konpainiaren egitasmo orokorraren sostengatzea, eta oroz gainetik hiru alor: sorkuntza, hedapena 64 departamendutik kanpo, eta euskarazko mediazio lanak.

Sorkuntza: *O!* eta *Fuga* pieza koreografikoen sorkuntza.

Hedapena: *Oahuetak, Ninika* eta *Xihiko*

Mediazioa: *Dantzan Bizi* proiektua, Oinez eta Zirikolatz elkarteekin partaidetza, Senpereko lurraldean sensibilizazioak.

- **IPARRALDEKO DANTZARIEN BILTZARRA**

Elkartearen urteko proiektua

EKEk federazioaren kultur proiektu orokorra sostengatu du, egitasmoaren bi alor estrategikori arreta berezia ekarriz: euskal dantzaren transmisioa dispositibo desberdinen bidez eta hedapena.

Formakuntza:

- Zabala moduloa Maurice Ravel Kontserbatorioan: Euskal dantza kurtsoak dantza garaikidez osaturik praktika aurreratuagoa eta zorrotzagoa izan nahi duten dantzari gazteentzat.
- Dispositiboa Jalgi: Euskal dantzarako prestakuntza, teknika eta errepertorioaren ezagutza sakondu nahi duten dantzari gazteentzat

- Xibero Master-class: masterclass-ak eskaini eta ikuskizunak egitea proposatu Zabala moduluko zein Zuberoako Jalgi eta Master-class dispositiboetako ikasleei.

Hedapen alorra:

- Dantzari ttiki: Haur, dantzari eta musikarien urteko topaketa, programa amankomun baten inguruan.
- Dantzari Gazte: Dantzari gazte (nerabe) zuzendu dantza topaketa.
- Harri Xuri Dantzan: Luhusoko Harri Xuri gelan dantza emanaldi batzuen programazioa, lurraldeko sorkuntzak argitan emateko xedearekin .
- Beste lurralde batzuekin senidetze proiektua: War'leur bretoi dantza federazioarekin trukateak haur eta nerabeentzat.

Osasun egoeragatik, gertakari batzu ezeztatuak edo egokituak izan dira.

- **SO.K**

Hatsa

Egitasmo hau osasun egoeragatik ezeztatua izan da.

- **NEO.K**

Neo.k pieza koreografikoaren laguntzari segida

Kotilun Gorriren inguruko sorkuntza, zazpi dantzarik euskal dantza eta garaikidea uztartzen dituen ekitaldian parte hartu dute.

Idazketa eta taula zuzendaritza: Laetitia Cheverry eta Julien Corbineau

- **TRAVERSÉE**

Hotza – 1. parte

Oskar Alegriaren labor-metraiaren oinarritua den pieza koreografiko hau bi Solo-z osatua da. *Hotza* labor metraia, xuri-beltzeko filma bat da, paisaia elurtuetan oinarritua, bidaia luze eta meditatibo bat hasten duen pertsonai bakar batekin.

Jatorrizko ideia eta koreografia : Mizel Théret

Dantzaria: Bertha Bermudez

Laguntza artistikoa: Joanna Etcheverry

Soinu sorkuntza: Raul Garcia Etxeberria

Zinegilea: Oskar Alegria

Sorkuntza egonaldiak: 2021 urtean zehar.

Estreinaldia: 2022ko udaberrian

Haurrak

- **ARTETXEA**

Antzerki tailerra

Antzerki tailer egitasmoari laguntza - Izturitzeko Artetxea gelan - 2021eko urrian. Peio Berterretzek bakantza denboran 11 urtez goitiko haurrentzat antzerki tailerrak kudeatu ditu. Hamar gaztek osatu taldeak *Sakatrapu* pieza aurkeztu du urriaren 9an herriko Artetxea gelan baita ere Urruñan eta Ortzaizen.

- **BI'ARTE**

Ttipi-ttapa & Hitz eta Pitz

Gazte publikoari zuzendu bi sorkuntzeri laguntza

Bi pieza hauek, adin tarteari egokitzen dira eta emozioetaz tratatzen dute.

Ttipi-ttapa 0-3 urtekoentzat

Hitz eta Pitz 3-6 urtekoentzat

- **NANOUA**

Kutxetan ibilki

Kutxetan ibilki haur antzerki sorkuntzari laguntza - Donazaharre - 2021eko otsailan. Nanoua Konpainiaren *Promenons-nous dans les boîtes* emanalditik abiatu, Fanny Bérard eta Maika Etxekopar antzezleek *Kutxetan ibilki* euskal bertsioa sortu dute. Laguntza Donazaharreko Lutxi Borda gelan otsailaren 1 eta 5a artean izandako egonaldiari zuzendu da. Sorkuntzaren aurkezpena Maulen egin da otsailaren 23an.

- **KIRIBIL**

Maiteder

Maiteder haur antzerki sorkuntzarako laguntza eman da 2021. urtean gauzatzeko. Lizardi poetaren bizian oinarritzen da eta bidaiaren tematikan inspiratzen. Errenteriko Niessen gunean izandako egonaldi denborei laguntza bideratu da (martxoak 15-19 / ekainak 22-24 / irailak 6-9 / urriak 18-21). Talde artistikoa: Ainara Gurrutxaga, Amaia Hennebutte, Fabrice Jacob.

Estrenaldia 2022ko otsailan aurreikusia da.

- **URMAELA TXIKI**

Ikusgarriaren egokipena haurrentzat

URMAELA TXIKI ikuskizuna, URMAELA ikusgarriaren egokitzea da, ume txiki-txikiei zuzendua, sei hilabetetik goiti. Emanaldi honek, generoaren eta sexismoaren gaiak, modu artistikoan tratatzen ditu. Bi interpreteek eramaten duten sorkuntza hori 35-40 minutuko iraupeneko da eta teknikoki arina.

Idazketa eta antzezlanak: Charlotte Guilharretze eta Amaia Hennebutte (KIRIBIL Konpainia). Musika Konposaketa: Ander Fernandez eta Charlotte Guilharretze. Eszenografia: Kiribil Konpainia

Gertakari erritualak

- **XIBEROKO JAUNA**

Abdelkader pastoralak

Ezpeize-Ündürene, Xarrikota Pea, Ürrüstoi-Larrabile eta Ainharbeko herritarrek Jean-Louis Davant-ek idatzi *Abdelkader* pastoralak aurkeztu dute uztailaren 25 eta 30ean eta agorrilaren 1 eta 8an, Ürrüstoi-Larrabilen.

Musika, kantua eta soinu artea

- **ARTEGIA**

Olha – Bilketa eta postal soinuaren sortzea

Egitasmoaren bururapena gibelatua izan da.

- **ASSOCIATION NATIONALE DU POTTOK**

Pottoka gaua - Pottoka eguna

Pottokari buruz ikusgarria, musika klasikoa, xiberoko eta dantza garaikideak, euskal kanta, bideoa eta hainbat pottoka uztarturik. Parte-hartzaile hauek bildu dira: Naia Robles, Otxalde taldea, Niko Etxart, Jean Bordaxar eta bere laukotea, Urrats berriak, So.k. , Marina Beheretche eta Aztarnak, Paxkal Indo, Paxkalin Chabagno, Fantagaro, Etienne Etchegaray eta Daniel Camblong. Emanaldiak publiko zabala bildu du Baionako Zezen plazan 2021eko agorrilaren 6an.

- **BASQUE ELECTRONIC DIASPORA - B.E.D.**

Zertana - Olerkia eta musika uztartzen dituen portulano bat

Egitasmo kolektibo honek Isa Suarez, Aurélia Arkotxa eta Miren Aranburu artistak elkartu ditu, musika eta olerkia biltzen dituen portulan baten sortzeko. Hendaia Abbadia eremuko itsas bazterean, ibilaldi artistiko batek sorkuntza artistiko ezberdinak lotzen ditu: musika elektronikoa, argazkiak, olerkiak eta pinturak.

33 minutuko soinu banda soundcloud plataforman entzungai

Sorkuntzaren aurkezpena: 2021eko abendua

- **FSE LA CITADELLE**

Iparraguirre-ri omenaldia

Jose Maria Iparragirreraren omenaldirako bideo sorkuntza bat egin da, *Hara nun diran* kantaren inguruan, lau kolegio (Irindatz, Bidaxune, Zitadela eta Jean Pujo) elkartuz bost musikari profesionalekin.

Egin behar ziren zuzeneko emanaldiak ezeztatuak izan dira osasun egoeragatik.

- **LES LABOURDINS**

Pello eta Otsa

IKAS pedagogia zerbitzuak euskaraz argitaratu Sergueï Pokofiev-en obra famatuaren egokitzapena harmonientzat.

Sorkuntza ateraldia: 2022ko otsaila.

- **MIRAILA PRODUKZIOAK**

Auhen rap taldearen kontzertua prestatzeko egonaldia

AUHEN taldearen zuzenezko emanaldia lantzeko egonaldia Biarritzeko Atabal gelan iragan da 2021eko urriaren 19, 20 eta 21an. Odei Barroso raplariarekin, Pierre Sangla, Peio Lambert, Bastien Mariane, Patxi Amulet eta Xabi Etcheverry musikariek AUHEN taldea osatu dute heien hurrengo diskoa 2022an ateratzeko.

- **MIXEL LABEGUERIE-REN LAGUNAK**

Mixel Labeguerie-ren sortzearen 100. urtemuga

Mixel Labeguerie-ren sortegunaren ehungarren urtemugaren kari hainbat ekitaldi antolatua izan dira :

- Urriaren 3an: Kantalasai Biarritzen
- Urriaren 9an: kontzertua Arruntzako elizan
- Urriaren 10ean: *Mixel Labeguerie, kantari, olerkari, politikari Hegoaldetik eta Iparraldetik ikusita* mintzaldia, Xabier Itçaina eta Pako Aristirekin
- Azaroaren 27an: kantaldia Baionan, Baionan kantuz eta txistulariekin

Alor desberdinak

• DANTZALAI

Xana eta sudur gorri magikoa

Emanaldi honek kontakizuna eta dantza lotzen ditu.

Interpretea: Eneka Bordato Riano

Euskaraz kontatua den ipuinaldi-dantzatu honen gaiak: emozioen bizitasunaren onartzea, baita ere nork bere buruari ezartzen dizkion mugen gainditzea. Sorkuntza egonaldien denboran, Mayi Gastanbide sofrologoak bere begirada ekarri du besteak beste.

Sorkuntza ateraldia: 2021eko udazkena.

• HEBENTIK

Züek Heben 2021

Pandemiarengatik, egitasmoa 2022. urtera gibelatua izan da.

• LURRAMA

Proiektu artistiko batendako deialdia

Laborantza herrikoi eta iraunkorraren bestaren kariatara.

Urriaren 24an Arbonan iragan ekitaldian, euskal artisten programazioa: Anari, Anje Duhalde, Diabolo Kiwi, Frigo, Xiberoots, eta Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsolariak.

• MENDIONDOAN

AnKanDan ikusgarriaren sorkuntza

Osasun egoeragatik egitasmo hau ezeztatua izan da.

• MUSIKATRUKE

Ipuinak

Egitasmo hau osasun egoeragatik ezeztatua izan da

• NoLa

Dantza, hip hop-a, musika elektronikoa eta ohizkoa nahasten dituen pieza, gizonak bere baitan duen emaztetasunari buruz. Bi dantzari eta bi musikariek interpretatzen dute.

Sorkuntza ateratzea: 2021eko udazkena

• SARDE SARDEXKA

Elikagai-instrumentuak

Egitasmo hau osasun egoeragatik ezeztatua izan da.

Antzerkia

- **AXUT!**

Amua

Amua sorkuntzarako bideratu da laguntza. Estrenaldia martxoaren 4ean Larzabalen izan da, Euskal Herrian bira bat hasi aitzin. Egun arte berrogei bat emanaldi aurkeztu dituzte. Taula zuzendaritza: Ximun Fuchs. Antzezleak: Maite Larburu, Manex eta Ximun Fuchs.

- **BONBON NOIR ET CROTTE DE BIQUE**

Gure Xaharrak – Ikusgarriaren berriz hartzea eta promozio bideo baten egitea

Mauleko Maule Baitha gelan ikusgarriaren berriz lantzeko bi egonaldi izan dira apirilaren 26tik 30era eta maiatzaren 4tik 8ra. Emanaldirako promozio bideoa ekoiztu da eta 2022ko otsailan aurkeztuko da.

- **ELEKA**

Ikusgarri baten sortzea

2021eko urtariletik uztailera, hainbat egonaldi iragan dira, Bidarrain, Donazarreko Lutxibordan, eta Luhusoko Harri Xurin. *IKI MIKI KLIK* Ikusgarriaren estrenaldia *Abian* festibalaren kari egin da, irailaren 24an, Donapaleuko mediatekan.

- **ITZULI**

Oihana

Sorkuntza egonladirako laguntza, Biarritzeko *Les Découvertes* gelan iragan dena 2021eko azaroaren 1etik 5era. Zuzendaritza: Maryse Urruty. Antzerkilariak: Barbara Rivas, Oihana Olasagasti, Arantxa Hirigoyen. Estrenaldia 2022ko otsailaren 6an izan da Baionako Eszena nazionalan.

- **JOSTAKIN**

Antzezlan baten sortzea

2021eko uztailetik goiti, Makea eta Lekorneko gazteek Peio Berterretche-k eraman antzerki tailerretan parte hartu dute.

Azaroaren 7an *Hegazkina* antzezlanak aurkeztu dute Lekornen.

- **KILIKA**

Hartza

Hartza sorkuntzari laguntza - 2021eko urtean. Hartza txontxongilo baten egitea karrika antzerki batentzat. Parte-hartzaileak: Battitt Halsouet, Damien, Fabienne Astruc eta Fran Dussourd.

Hedapena 2022ko urtean zehar proposatuko da.

- **ROUGE ELEA**

On est là tout va bien

Dena ongi hemen gaude sorkuntzari laguntza, Rouge Elea konpaniak egindako egonaldiarentzat ekaina uztailan eta sorkuntzaren estrenaldirako Bilboko Kalearte festibalean 2021eko uztailaren 1ean.

❖ ARTE BISUALAK ETA IKUS-ENTZUNEZKOAK

- **SPACEJUNK**

Euskal artista baten egonaldia

Baionako *Points de vue* festibalaren 5. edizioaren kari, Spacejunk elkarteak Sortwo artista tolosarra errezibitu du, Jean Dager zelaiko ekialdeko tribunan mural erraldoia sortu duena.

- **UZTARO**

La Caminante

2021eko irailaren 29tik goiti, bost sorkuntza saio antolatuak izan dira asteazkenetan. Saio bakoitza hiru tailerretan deklinatu da: bideoa, margolaritza eta argazkia.

Bigarren saio ziklo bat eramana izan da Landesetako herri batean.

Tailer horien emaitza 2022an aurkeztuko da, erakusketa eta liburu batean.

- **ZUKUGAILUA - LA CENTRIFUGEUSE**

Zinema ikastaldia euskaraz

Euskal zinema ikastaldi egitasmoari laguntza - Bidarrain - 2021eko agorrilaren 2tik 5era. Irudi heziketa ekintza hau 18 - 25 urte arteko ikasleei zuzendua izan da, zinema sektoreko profesional batzuek eskaini lau eguneko ikastaldi batean parte hartzeko. Raging Bull filma ospetsuaren eszena batzu euskaratu, zuzendu, filmatu eta muntatu dituzte Kanaldudeko estudioetan. Esperientziaren emaitzak kanaldude TV-ren *Zine gaualdia-n* agertu dira.

- **ZUKUGAILUA - LA CENTRIFUGEUSE**

Garapena

Zukugailua garapenari sustengua - Baionan eta Irisarrin - 2021. urtean zehar. Euskal ikus entzunezko eta euskarazko zinema sustatzeko xedearekin Euskal Herrian, Zukugailua elkarteak euskal zinemaren ekoizpena eta hedapena laguntzen ditu, batez ere gazteen sorkuntza eta formakuntza profesionala antolatuz eta bultzatuz baita ere mugaz gaineko zinema sare egonkor bat animatuz.

Lurraldeko gidoilari eta filma egileentzat idazkera tailerrak antolatu dituzte Baionako Atalanten (ekainean) eta Irisarriko Ospitalean (azaroan).

❖ LITERATURA

- **JAKINOLA**

Literatura ibilaldiak

Erotismoa euskal literaturan gaiaren inguruan, literatura tailerren antolaketa, Itxaro Borda idazleak animaturik (idatzi, irakurri eta iruzkindu)

4 saiotan antolatua: 2021eko urriaren 2an, azaroaren 6 eta 20an, abenduaren 4an

- **LITTORAL BASQUE ATALAIA**

Idazle egonaldiak Nekatoenean

Aurten, idazketa egonaldiaren irabazlea autore, bertsolaria eta ikerlaria den Maialen Akizu Urretxuarra (Gipuzkoa) da.

Egonaldiaren datak: Azaroaren 3tik 26era eta abenduaren 7tik 10era.

❖ ZIGILU DISKOGRAFIKOAK

- **BELARRI**

Laguntza disko baten edo bi diskoren ekoizpenari

EKEk label diskografikoari ekarri sostenguaren kari, Belarri labelak ekoiztu Albosax taldearen *ufakatakolpeka* diskoa lagundu da.

- **EZKANDRAI**

Haratago diskoaren ekoizpena

Jordi Cassagne, Nicolas Nageotte, Bastien Fontanille eta Julen Axiari musikariek basa ahaide arreglatu batzu grabatzea izan dute xede. Sorkuntza grafiko eta filmaketa batek lagundu dute diskaren ekoizpena, hau 2022ko apirilean argitaratuko delarik.

- **HAURROCK**

Kantu tailerra eta disko baten grabaketa

Itsasu, Larresoro eta Senperen, 2021 urtean zehar, hiru herrietako gazte eta nerabeek asteroko kantu tailerretan kantu erreperitorio bat sortu dute Philippe Alborekin, eta udazkenean disko bat grabatu.

- **THE RODEO IDIOT ENGINE**

Orbel taldearen disko berria

Orbel taldearen disko berria lagundu da, Jean Baudoin, Manu Matthys, Pierre Loustaunau, Amaury Sauvé eta Odei Barroso musikari, bertsulari, kantari, konpositore eta soinu injineruek ohizko eta elektro musika arloetan egin formakuntzen bidez. Diskoaren grabaketa 2021eko abenduan egin da.

Aukezpena 2022ko udaberrian.

- **ORGUE EN BAIGORRI**

Aztarnak

Aztarnak disko ekoizpenerako laguntza. 2022. urtean aurkeztuko da Marina Beheretche, Paxkal Indo, Paxkalin Chabagno eta Mixel Etxekopar-en parte hartzeekin, besteak beste.

➤ Hedapen proiektuei laguntza

❖ FESTIBALAK

- **ABOTIA**

Xiru

Bardoei zuzendutako festibala *Gaztelondon zer berri* emanaldiarekin, *Gartxot* filma proiektzioa, Joan Frances eta Jordan Tisner, André Minvielle eta Amaren Alabak kantari eta musikariek. Festibala Gotaine Irabarnen eta Barkoxen iraun da 2021ko agorrilaren 27, 28 eta 29an.

- **ACCENTS DU SUD**

Hestiv'Oc

Hestiv'Oc festibalak euskal artistak gomitatu ditu: Bilaka kolektiboa agorrilaren 20an, Nøgen musika taldea agorrilaren 21ean, Xiberotarrak urriaren 8an eta Thierry Biscary azaroaren 6an.

- **AKELARRE**

Txontxongilo festibala

Hendaian, 2021eko azaroaren 15etik 19ra, Les Variétés zinema gela. Rosa Martinez taldearen *Hala bazan* emanaldiaren programazioa 298 ikasleentzat.

- **EHZ**

Euskal Herria Zuzenean

EHZ festibalak Irisarrin iraun du 2021eko uztailaren 2, 3 eta 4an publiko zabal bat bilduz honako taldeen programazioarekin: Nøgen, Ruper Ordorika, Potato, Xiberoots, Mairu Aguxtin Alkhat, Kuartz edo Anestesia.

- **EZIN ASEAK**

Koruak

Osasun egoeragatik, festibala ezeztatua izan da.

- **EZKANDRAI**

Errobiko Festibala

Errobiko festibalak Itsasun iraun du 2021eko uztailaren 22tik 25era Maddi Oihenart, Julen Achiary, Beñat Achiary, Jérémie Garat, Joseba Irazoki artisten baita ere Bilaka, Kukai dantza, Ballet Malandain dantza taldeen eta Haratago, Kimu Txalaparta musika taldeen parte hartzearekin.

- **ETIOPIKOAK**

Pandemiarengatik, martxoan izan behar zen ekitaldi hori ezeztatu egin da.

- **HERRI SOINU**

Hartzaro, Hartza altzoan, Herri Uzta

2020 eta 2021 urte berriz ere bereziak izan dira kultur programazioaren alorrean ari diren elkarreentzat. Osasun egoerak eragin duen egoera aldakorra azkarki jasan dute eta programazio egutegia behin baino gehiagotan aldatu behar izan dute. Horren ondorioz, elkarreak urtean zehar antolatzen dituen hiru denbora azkarrak nahasirik izan dira (Hartzaro, Hartza Altzoan eta Herri Uzta). Egoera berezi hori kontutan hartuz, aurreko hiru denbora azkarrak hitzarmen bakar batean elkartuak izan dira.

Hartzaro festibala & Hartza Altzoan

- Martxoaren 18an: Habia soka eta ahots hirukotearen bideo kontzertua
- 2021eko ekainaren 3 eta 4an, Hartza Altzoan festibalean, Errobi lurrealdeko 10 eskoletan egindako sorkuntza artistikoko tailerren emaitzaren aurkezpena: «artistagaien» ikuskizunaren aurkezpena Kiroleta frontoian bideoz grabatua.
- 2021eko agorrilaren 1ean: Alpontxo eguna. Uztaritzen, Izartxo dantza taldea, Tutak euskal antzerkia, bertsularitza, Uztaritzen kantuz-ekin kantaldia, Kontrabandaren kontzertua.
- Europako Ondarearen Egunaren kariatara irailaren 18an, Edorta Jimenez-en mintzaldia eta irailaren 19an, Uztaritzeko Haitzeko gazteluan, bisita, Habiaren kontzertua eta Michel Labeguerie kantariaren sortzearen mendeurrenaren ospakizuna.

Herri Uzta festibala

Irailaren 30etik urriaren 10a arte: Sasi Ardiak musika-taldearen kontzertua, Bilaka konpainiaren *Saioak* emanaldia, 80 txistularien agerraldia Baionan, eta kontzertua Michel Labèguiereren sortzearen mendeurrenaren omenez, Baionako Herriko Etxeko plazan. Uztaritzeko Txistulariak taldea eta Donostiako Txistulari Bandak taldeekin, Nèhe harmoniaren kontzertua, Mochicas, Lapurtarren Biltzarra, Kantalasai Biarritzen, Xabier Itçainaren hitzaldia Michel Labeguerieren bizitzari eta lanari buruz, Tio Teronen Semeak, Baigorriko Arrola, Uztaritzeko Izartxo eta Tolosako Uda Berri dantza taldeen ikusgarriak, 42. Mutxikoaren Eguna: Kiki Borda, Txakatuk Txaranga, Ezpela Txaranga, eta Atharratzeko dantza taldea eta Tio Teronen Semeak.

• LIBREPLUME

Le petit Bouquinville

Euskal artisten programazioari laguntza, *Le petit Bouquinville* festibalaren kariatara Aurten, festibala 2 denbora azkarretan zatitua da:

- 1.zatia: martxoaren 8tik apirilaren 3ra - ikastetxeetan
- 2.zatia: urriaren 13tik azaroaren 6ra - familientzat

Idazle tailerrak, topaketak idazle / ilustratzaileekin: Arrate Egana eta Ainara Azpiazu «Axi», Kiribil et Nanoua konpainien emanaldiak.

• MINTZALASAI

Kultura programazioa

Euskal artisten programazioari laguntza - Mintzalasai #10 - Irailaren 20tik 26ra

Mintzalasai festibalak ekitaldi andana bat proposatu ditu BAB osoan (Baiona, Angelu, Biarritz), euskara egunerokotasunean bizitzeko gogoarekin.

Euskaraz iragan eta belaunaldi guziei zuzendu ekitaldi berritzaile eta herrikoiek egitarau aberats baten bidez. Besteak beste: Trukatruk, Bilaka kia, Kiribil, zine gauldia, Kiki Bordatxo, Libreplume...

• PINPULKA

Jokoz kanpo

Balleperdue kolektiboaren *Gora! Un selfie au milieu des Sioux* emanaldiaren hedapena 2021eko ekainaren 5ean Ezpeletako Merkatu estalitik, Jokoz kanpo karrika arte festibalaren 11. edizioaren kari.

- **USOPOP**

Kontzertu programazioa

Sarako herrian Unai eta Tatxers taldeen emanaldiak agorrilaren 25ean Keinun, Rüdiger taldearen kontzertua irailaren 26an Suarriaga parkean eta Amorante musikariaren emanaldia azaroaren 14an Santa Katalina kaperan izan dira.

❖ **TOKIKO KULTURA EKINTZAK**

Arte bisualak eta ikus-entzunezkoak

- **ARGIAN**

2021eko argazkiaren biltzarra

Lizarrako argazki taldearekin partaidetzan, Argian elkarteak denei ireki argazki lehiaketa bat antolatu du, *Bakardadea* gaiaren inguruan. Lanak irailaren 1etik 30era izan dira ikusgai, Donibane Garazin. Bestalde, Argian eta AFTELAE argazki taldeen obrak ikusteko parada izan da.

- **BEGIRADA**

Argazki erakusketa

2021eko ekainaren 5etik agorrilaren 29ra, Donapaleun, Begirada elkarteak 15 erakusketa antolatu ditu *Topaketa* gaiaren inguruan.

- **CINÉMA & CULTURES**

Euskal Zinema Corner

Baionako L'Atalante zinema gelan 2021 urtean laguntza, *Akelarre*, *Atarrabi & Mikelats*, *Caminho Longe*, *Non dago Mikel?*, *Nora eta Irrintzi* filmen programazio eta aurkezpenari zinemagileen eskutik, baita ere *Hemendik* ekitaldiari.

- **ZINESKOLA**

Euskarazko lehen mailan eskolatu ikasleei zuzendua den Zineskola dispositiboaren segipena, 2021eko maiatzaren 19tik ekainaren 29a iragan dena.

Lurraldeko eskoletako haurrei zuzendu *Arratoi Pirata*, *Kéritu* eta *Lur eta Amets* 3 filmen hedapenaren segipena segurtatu da Iparraldeko hamar herrietako zinema gela hauetan: Maule, Donibane-Garazi, Donapaleu, Hazparne, Baiona, Donibane Lohizune, Urruña, Hendaia, Biarritz eta Kanbo, 2627 ikasle bilduz maiatzaren 19tik ekainaren 29a arte.

- **CINÉVASION**

Euskal filmen hedapena Cinévasion sareko geletan

Cinévasion sareko geletan ondoko filmen proiektzioa zinemagileen presentzian: *Akelarre* - Pablo Agüero, *Atarrabi eta Mikelats* - Eugène Green, *Caminho Longe* - Josu Martinez, *Zumiriki* - Oskar Alegria, *Non dago Mikel?* - Miguel Angel Llamas

- **HARAN UBEL**

Atelier Bingo x Haran Ubel - Artista egonaldia Alduden - 2021eko uztailaren 25etik agorrilaren 1era

Atelier Bingo-ko Maxime Prou eta Adèle Favreau artistak Alduden egon dira aste batez «emazteak eta besta» gaiari buruz liburu irudi baten sortzeko. 18-95 urte arteko emazte batzuen elkarriketetanoinarrituz, liburuxka bat argitaratua izan da. Haurrentzat tailerrak proposatuak izan dira ere.

Egonaldia ekitaldi berezi batekin amaituko da liburuaren aurkezpenarekin batera.

- **ITZAL AKTIBOA**

Arte erakusketa eta Itzal Aktiboa saria

Osasun egoeragatik, ekitaldi horiek ezeztatuak izan dira.

Bertsularitza

- **BERTSULARIEN LAGUNAK**

Bertsularitzaren sustapena eta hedapena

EKE-k Bertsularien Lagunak (BL) elkarte bertsularitzaren sustatzen eta garatzen lagundu du ekimen hauen bidez:

- Bertsu-saioen antolaketa lagunduz (bertsulariak ordaintzeko diru-laguntza eskainiz).
- Lehiaketen bidez : Aitor Sarasua bertsopaper lehiaketa, Euskal Herri guziko gazteei eta helduei zuzendua izan dena. *Hernandorena sariketa*, aurten manera berezi batez saio bakar batean iragan dena Baionako Zizpa Gaztetxean maiatzaren 29an Iparraldeko sei bertsulari gazteekin.
- Xilaba xapelketaren bidez. 2020an Banakako *Xilaba* xapelketa irailaren 19an hasi zen baina burutu gabe egon zen Covid krisiagatik. 2021ean Bertsularien Lagunak xapelketa berriz osoki antolatzea erabaki du. Irailaren 18tik azaroaren 13a bitartean, 24 bertsulari zortzi saiotan lehiatu dira eta Donibane Lohizunen iragan finalean Amets Arzallusek jantzi du xapela. Honekin batera, 2022an iraganen den Euskal Herriko Bertsu Txapelketa nagusian, Miren Artetxe, Odei Barroso, Maddalen Arzallus eta Sustrai Colina bertsulariak Lapurdi, Baxenabarre eta Xiberoa ordezkatzeko dute.
- Bertsularitzari buruzko ekintzetaz komunikatuz eke.eus atarian eta EKEren sare sozialetan.

Mintzaldiak

- **ANGELUKO IKASLEAK**

Mintzaldi zikloa

Egitasmo hori osasun egoeragatik ezeztatua izan da.

- **LAPURDI 1609**

Mintzaldiak eta beste kultura hitzorduak

Lapurdi 1609 elkarteak mintzaldi ziklo bat antolatu du Senpereko Larralde gelan:

- 2021eko uztailaren 9an: *Nafarroa beheara, 1789ko iraultzan*, Filipe Bidartek emanik

- 2021eko irailaren 10ean: *ZUZEU, euskarazko hedabide digital librearen aurkezpena, hemen Iparraldean erabiltzeko gisan*, Beñat Hach Embarek Irizarrek aurkezturik
- 2021eko azaroaren 12an: *Aiaraldea ekintzen faktoria, euskaltasunaren aldeko ekimen herrikoi ohargarria*, Gartzten Garaioak aurkezturik

- **L'ENFANCE DE L'ART**

Sur les pas de Roland - Artekagaitz

Egitasmo hori osasun egoeragatik ezeztatua izan da.

- **ZABALIK**

Otsail ostegunak 2021

Egitasmo hori osasun egoeragatik ezeztatua izan da.

Literatura

- **HATSA**

Hatsaren poesia 2021

Hatsa elkarteak euskarazko olerkiaren inguruko hitzordu batzu antolatu ditu urtean zehar:

- Hatsaren Poesia egunaren antolatzea, ekainaren 13an, Senpereko Larraldean. Egun horren kari, olerki bildumaren aurkezpena, partaideen irakurraldi poetikoa eta kantaldi poetikoa (Leire Zabala, Matxalen Bezos). Helduekin 12 olerki tailerren eramatea eta haurrekin tailerrak ere urtean zehar.
- *Argi hitzkiak 2021* argazki-olerkiz osatutako bideoaren eraikitzea eta hedatzea.
- *Su hatsa* egunen antolaketa agorrilaren 10 eta 29an.

- **KIRIBIL**

Ikusi Mikusi

Galtzagorri elkartearekin eta Pamiela argitaletxearekin partaidetzan, Kiribil konpainiak Euskal haur eta gazte literatura azoka antolatu du Saran, urriaren 8 eta 9an. Eskolendako eguna 900 ikasleen presentzian iragan da ostiralez eta larunbatean familien eguna. Bi egunez, animazio, tailer eta ikusgarriez jositako programazioa, baita euskarazko argitalpen berrien deskubritzea ere.

- **LIBREPLUME**

Euskaraz irakurri

Urte osoan zehar, euskarazko liburu irakurketa bultzatzeko asmoz, Libreplume elkarteak haur/guraso tailerrak proposatzen ditu:

- Nini irakurleak 0-3 urteko haurrentzat (hilabete behin)
- Pijama/esku argi gaualdiak 4 urtetatik goitiko haurrentzat (hilabete behin)
- Tailer elebidunak 4 urtetatik goitiko haurrentzat (hilabete behin)
- Sartze lib(u)r(u)ea asteazkenetan

- **MAIATZ**

Biziminaren koloreak 2021

40 urte euskal literatura sortzen: maiatzaren 27an, Baionako Euskal Museon:

- Performantza poetiko bat Eric Dicharryrekin
- Mahain inguru bat: Marikita Tambourin, Amaïur Epher eta Itxaro Borda idazleekin

Urte osoan zehar, literatur ekitaldi batzuen antolaketa: solasaldiak *Biziminaren koloreak euskal literaturan* sailean.

Maiatz 72. eta 73. literatur aldizkariaren argitaratzea

- **SARAKO IDAZLEEN BILTZARRA**

2021eko Idazleen Biltzarra

Urriaren 10 eta 11an. Igandean, aurkezpenak, mintzaldiak eta mahai inguruak antolatuak izan dira. Azokan, publikoak idazle, argitaletxe eta elkarteekin trukatzeko aukera ukan du. Astelehenean, *Emazteak eta euskal literatura* gaiaren inguruko egun profesionala.

Musika eta kantua

- **ALDUDARRAK**

Estitxu kantatuz

2021eko azaroaren 6an, Senpereko elizan, Iparraldeko 50 bat kantari bildu dira Estitxu Robles-en errepertorioa kantatzeko.

- **AMICALE DU PETIT BAYONNE**

Txistularien elkarretaratzea

Osasun egoeragatik ekitaldi hori ezeztatua izan da.

- **ARTETXEA**

Kantaldi gaualdia

Izturitzeko Artetxea gelaren aitzinean agorrilaren 29an Eñaut Elorrieta musikariak eta Leizea taldeak eskainitako kantaldiak 150 bat pertsona bildu ditu.

- **BAKALAU**

Bidasoan euskaraz - kontzertuak

2021eko uztailaren 23tik 25era, elkarteak ekitaldi kulturalak antolatu ditu Pausu auzoan:

